

anaitasuna

1979.EKO URTARRILAREN BIGARREN HAMABOSTALDIA 377.ALEA 60 PZTA.



EUSKARAZ ZER? HONA GURE HITZA: EGUNORO ERABILTZA.



© GRUPO

Egin dezagun egunkari elebidun bat, gure kale, eskola eta lantegietan euskara egunoro erabil-araz dezan.

Geure hizkuntza baitugu gure herri bizitzaren erakusle bakarra.

Iritsi baita euskara geure etxe-zulotik ateratzeko garaia. Guztiok hartu behar dugu esku, Egin geurea, elebiduna, geuk nahi dugun hori izan dedin.

Elkargoan eginez. Guztiok finantziatuz.

Egin dezagun geure egunkari berri eta egi-zalea.

Harpide zaitetz eta partzuer-kontu bat eskura, kupoi hau bete eta ORAIN, S.A.-ri bidaliz: ORAIN, S.A.

Apartado 1567. Bilbao.

Apartado 444. Pamplona.

Apartado 1397. San Sebastián.

Apartado 420. Vitoria.

EGIN egunkariaren finantziaketan esku hartu nahi dut:

Urteko harpidetzaren bidez.

(2.000 a 100.000.) _____ pezetako partzuer-kontuaren bidez.

Ordaintzeko era

Giro n.º _____ Cuenta corriente n.º _____

Bankoa _____

Deitura _____

Helbidea _____ Telefonoa _____

Hiria _____ Probintzia _____

egin

HAGAMOS EGIN. EGIN DEZAGUN EGIN.

AZKUE BIBLIOTEKA
EUSKALTZAINDIA
BILBO

2126

28 JUN. 1979

AURKIBIDEA



4. Editoriala.
5. iburu berriak. Xabier Gereño.
6. Errepresioa Errefuxiatuentzat Gezan Lantziri.
8. Soriatik etxeraino. Joseba Sarrionaindia.
9. Historia triste baina benetakoa. J. R. Etxebarria.
10. Txistu danbolinez (I). Borja Barandiaran.
12. Euskal telebistaren Urrabideak. Alex.
14. Hamabost egun hankaz gora. Iñaki Zabaleta eta Begoña Zia.
16. Ohar laburrak.
18. Estatu espainolaren problemak. Mendizabal.
20. Kanbodia eta Ekialde Urruna: komunisten arteko burruka tokia ote? M.^a Jesus Esteban.
22. Emakumeekin mintzo: Maribel Belastegi, Mariasun Landa.
24. Alan Stivell-ek Euskal Herrian kantatuko du. Karlos Arko.
26. Masak ala Eliteak. Galtzagorri.
28. Kristauak eta marxistak berriro. M. Pagola.
30. Bi txori. Dena alderantziz. Karmeleri.
32. Gizaki. Gente.
34. UEU bere identitatea bilatzen. M. Orbe.
35. Euskal arazoa frantsez irratian. Miren Aldana.
36. Karteldegia. J. J. Bakedano.
37. Il Casanva di Federico Fellini. Joseba Sarrionaindia.
38. Komikia.
40. Osasunerako heziketa. Astobiza.
41. Zenbakien erabilera. J. R. Etxebarria.
42. Ardibeltz. Gurutzegram. Labyrinthia.



anaitasuna

KOORDINAKETA

J.R. Etxebarria

ERREDAKZIOA

J.LLerandi, T.Trifol

ERREDAKZIO KONTSEILUA

J. Agirreazkuenaga, M. Alvarez,
B.Atxaga, J.R. Etxebarria,
E. Knör, J. Idigoras, J.LLerandi,
E. Martin, T. Trifol, I. Urtasun,
I. Zabaleta

ARABA

E. Knör

BIZKAIA

J. LLerandi

GIPUZKOA

I. Urtasun, A. Oiartzabal

IPARRALDEA

M. Lanatua

NAFARROA

I. Zabaleta, B. Zabaleta

NAZIOARTEKOA

M. Alvarez, A. Eskisabel, M.J. Esteban, T. Trifol

IDAZLE ETA LANKIDEAK

J. Artzelus, X. Gereño, J.M. Torrealday, X. Kintana, A. Eguzkitza, P. Agirrebaltzategi, I. Azkoaga, J.L. Alvarez(Txillardegi), A. Loroño, J. Mendizabal, J. Azurmendi, M. Haranburu, M. Lasa, R. Ordorika, E. Entziondo, S. Laffite, M. Pagola, K. Anakabe, J. Sarrionandia, J.J. Bakedano, Natxo de Felipe, F. Alaña, J. Etxebarri, B. Barandiaran, K. Arko, J. Iturbe, M. Otazurialde, J.R. Bilbao, J.M. Arzubiaga.

MAKETAPENA

R. Zumalabe, J. Etxebarri

KOMIKIAK

A. Olariaga, I. Lauzirika, B. Zia, X. Etxenike, Gentz, Monty.

MARRAZKILARIAK

Ttua taldea

PUBLIZITATEA

ETA

HARPIDETZA

J. Idigoras, A. Uria

ANAITASUNA

Zabalbide 68-entlo.BILBO 6

Tfnoa: (9)4- 4335808

MOLDIZTEGIA

Iparragirre S.A.

Carretera a Galdacano s/n BILBO

Lege. Gor. D.L. Bi-1753-1967



BETI BERDIN

Beti eskurtean gai bera erabiltzea eta antzeko gauzak errepikatzea, ez dugu egiten geure gogoa hori delako, egun guztietako bizimoduak horretara beharturik baizik. Zapalkuntzazko egoera honek bukaerarik ez duela ematen baitu.

Ehunetik gora dira jadanik Sorian gartzelaraturik daudenak, eta euskal presoan kopurua luzeagotzen ari zaigu etengabeki egunero. Franco-ren sasoirik txarrenetan ere ez da horrelako gartzelarik ezagutu. Gaztelako presondegi hartako bizi kondizioak, poliziaren ministroak Alemanian ikasitako metodoen arabera eratuak, hain dira grabeak, non horrela segituz gero, hondamendi bat jazoko baita guttien uste dugun egunean.

Azken orduko demokraten Estatu honen azpian pairatzen genuena gutti zela eta, oraingotan argi eta garbi bi dira kontra ditugun Estatuak. Orejak eta Giscardek elkarri emaniko musuaren truk, extradizioak eta deportazioak izan ditugu.

Terrorismoaren kontrako Legeaz aski ez zutela eta, hamabost puntu zoritxarrekoak ezarri zizkiguten; azkenengo prestatu dutenari "Ley de Seguridad Ciudadana" deitu diote, eta horrek guri pentsarazten digu, gu geu ez gaudekeela "ciudadano" horien artean sarturik, segurantzaren ordeztu-rra eragiten digu eta. Disimulurik gabe, hiri eta herrietako kale eta kaminoak militarri okupatu dituzte. Terrorismoaren apologia dela eta, Montzon, gizon beldurgarria berau, gartzelan utzi dute. Bitartean, Conesa eta bere super agenteak jo eta ke ari zaizkigu beren demokraziaren defentsan.

Euskal "problemak" konponbide politikoak behar zituela esaten zizkiguten batzuk ere, beren eritzia aldatua dute, hala nola M. Villarekin ados agertu zitzaigun Mugica Herzog jauna, agian ministroa. Hauteskunde garaian ari zaigu gertatzen hau guztiau. Paradoxikoki, demokrazia honek Frankismoaren erremedio berbera aplikatzen ari zaio Euskal Herriari.

Hemen bakea posible da, baina seguru gaude bide horretatik ez dela etorriko. Baina batek esan bezela, itsurik txarrena ikusi nahi ez duena omen...

LIBURU BERRIAK

"FILOSOFO BERRIAK", taldean idatzia. JAKIN editoriala. 150 horrialde.

Liburu honen egileak hauk dira: X. Andonegi, M. Pagola, J. Azurmendi, J. Sodupe eta J. M. Torrealdai. Liburuak, JAKIN sortaren 8.alea egiten du eta editorial honen okizko seriotasunarekin aurkeztuta eta egina dago.

"AMAIUR", Yon Etxaide. GERO editoriala. 140 horrialde.

Hiru ekitalditan idatziriko drama teatrala. Etxaideren luma paregabea aspaldian ixilik egon ondoren, lan bikain batekin agertzen zaigu berriro.

"ERREALISMO SOZIALISTAZ", Joxe Azurmendi. LUIS HARANBURU editorea. 130 horrialde.

Joxe Azurmendi dugu horrialde gehien argitaratu duen euskal idazlea, eta harrizkeoa da langile porrokatu honen emankortasuna. Aurreko urteetan saio asko argitaratzen zen euskaraz. Gero, gutxitu egin ziren, baina ba dirudi berriro arlo hau jorratzen dela, eta hau pozgarria da.

"FORUAK ETA EUSKAL LITERATURA", Angel Zelaieta. LUIS HARANBURU editorea. 112 horrialde.

Beste saio bat. Angel Zelaieta-k, bere lanak, arreta handiz antolatzen ditu eta aztertzen dituen pasarteak zuzen eta zorrotz tratatuak izaten dira.

"EUSKERA". Euskaltaindiak argitaratua. 410 horrialde.

Euskal Akademiak urteko lanak argitaratu egiten ditu, eta 1978 urteari dagokion lehen tomoa zabaldu berri da. Liburu honetan urtariletik ekainera egingako lanak aurkeztzen dira.

NAPOLEON, FRANTZIAKO ENPERADORE", Xabier Gereño. Idazle bera editore. 128 horrialde. Prezioa: 150 pezeta.

Napoleon Bonaparteren lehen biografia euskaraz. Arlo hau ez zegoen orain arte euskal literaturan ikututa. Liburu honekin "Zubi Saila" (Biografia eta Historia) hasten da. 13 foto.

PERU ABARKAREN BERRIRAKURTZEA",

Angel Zelaieta. LUIS HARANBURU editorea. 150 horrialde.

Angel Zelaieta-ren beste saio sakon bat. Oraingoan, Mogel-en liburu famatua aztertzen du ohi duen maisutasunarekin.

"AZKENEAN, DILDAN", Jin Casenave

eta Martin Larzabal. Idazleak berek editoreak. 140 horrialde. USTELA saila.

Euskal literaturan bide berriak urratzen. Liburu herritarren parean hauegarikoak ere behar ditugu, populismo baretan jausi nahi ez badugu.

"HILARGIAREN HOTZIKARAK", Pello

Lizarralde. Editorea, idazlea bera.

Hau ere Ustela sailekoa. Liburu labur bat, irudi ugariz honituta. Hitz gutxi, baina sakon aztertu eta aukeratuak, lanaren osotasunaren barneari efektua eman dezaten.

"MAHOMA, ISLAM-EN SORTZAILE", Xabier

Gereño. Idazlea bera editore. 128 horrialde. Prezioa: 150 pezeta.

"Zubi saila"-ren bigarren alea. Liburuaren lehen partean Mohamaren bizitza aurkeztzen da, eta bigarrenaren haren ondorengo Kalifen ekintza nagusiak eta hiru Gurutzadak. 13 foto.

XABIER GEREÑO

ETA-KO GUDARI BURUEI TIROKA

eta Iparraldeko herri eritzia errefuxiatu eta lekuko abertzaleek kontra altxarazi

Azken bospasei hilabete hauetan, espainol eskuindar talde harmatuak Euskal Herriko Iparraldean ari zaizkigu ETAko gudariak sailean tiroka botatzen. Egia erran, lehenagotik ere lotuak ziren bide horri, hala nola Donibane Lohitzunen Tomas Perez Revilla bere andrearekin tirokatu zutelarik, Biarritzeko Milady kalean errefuxiatu baten autoa plastikatu zutelarik, Txomin Iturbideren autoa bizpahiru aldiz, Etxabe anaien ostatua eta Zabal liburudenda halaber zartagailuz xehatu zituztelarik. Besteak beste.

Eta kasik aldi oroz, espainol frankista errabiatu horik frantses tirokari eta plastikari ofizialen laguntzaz baliatu dira. Hauk OAS (Algeriako gerla denboran sortu erakunde militar ixila) eta duela zenbait urte agertu DELTA erakunde faxista, izan direlarik orain arte. Erakunde hauek biek jakinarazia dute, nola ibiliko diren zuzenean euskaldun gudarien erahiltzen.

Hona nor noiz tirokatu dituzten azken bospasei hilabete hauetan:

—78ko Uztailaren 3ko gauean, Donibane Lohitzunen, Etxabe senar emazteak, hau lekuan bertan hila zuten zutelarik, eta J. Jose handizki zauriturik.

—78ko Abenduaren 21ean goizean, "Argala" deitu Jose Migel Beñaran Ordeñana, bere kotxea pizterakoan, zartagailu batek xehatu zuena.

—79ko Urtarrilaren 13ko goizean, laupabost metrotatik ehiziko harma batekin, eskuan, buruan eta bularretan zauriturik utzi zuten Jose Manuel Pagoaga, "Peixoto" deitua.



Ez da ohiki horrelako galderarik idazten, baina Iparraldean guti edo aski gehien gogoan dabilena hau da, zorigaitzez: hurrengo tirokada edo zartagailu norentzat eta noiz? Zeren, itxura guzien arabera, espainol frantses talde eskuindar faxistak bide horretatik joateko deliberratuak baira.

Eta hau guztiau guti zelarik, azkenik beldurrez espero zitekeena, Oreja espainol ministrariak Parisera egin bidaiaren ondoren, Giscardek zazpi errefuxiatu entregatu dizkio espainol polizia, berehalaxe gartzelaratuak izan direnak, eta besteak Euskal Herri bota dituzte, Alpeetako Valensolera.

ZER ONDORIO DAKAR HONEK IPARRALDEARENTZAT?

Tirokada eta zapalkuntza giro horren ondorioz, Iparraldeko jendearentzat ondorioa bi eratakoa da, ene ustez. Eta da:

—Alde batetik, horretaz baliatuz, euskal burrukaren kontra direnak, irudiz bederen, erradikalizatzen ari direla, herri gizon, notable eta berribideak, dela egunkari, irrati eta telebistak, aitzindari eta supizle dituztelarik.

Hala nola, Donibane Lohitzuneko herriko etxeko kontseilari gehienek hiri horretan bertan egin manifestaldi baketsua eta Argalaren erahilketa berdin kondenatu zituen bere agirian. Ondotik nahasketa berdina egin zuen departamentuko kontseilari jeneralen agiriak. Bai onako herriko etxeak eta Biarritzeko alkateak halaber egin zuten. Hendaiako herriko etxeko kontseilua bakarra izan da atentatua kondenatu zuena eta honen kontra egin manifestaldia ulertzen zuela esan zuena. Eta nonbaitik ere irrati-telebistek agiri hau ez dute aipatu!

Beste aldetik, berriz abertzaletuen den jendea, ehuntaran edo portzentaia oraindik apal dagoena, giro horren bidez berriz piztu bezala egin da eta beriziki alderdi, erakunde eta taldeen artean, senditzen ari gara, halako elkarretaratze nahi eta behar bat sortzen ari dela. Eta ondorio on hori gehienbat urtarrilaren hamazazpian, Donibane Lohitzunen egin den manifestaldian agertu da. Frantses indar harmatuek, bizpahiru egun aitzinetik, Hegoaldeko jendea

ERREPRESIOA ERREFUXIATUENTZAT



CRSak Euskal Herria erdibitzen duen muga zaintzen

ez zuten mugatik iragaitera uzten. Baina halere, Iparraldetik bi milako bat jende bildu da. Ez baita segur jende biltze tipia. Eta gauza bera gertatu da, otsailaren hiruan egin manifestaldian, non hiru mila bat jende bildu baitzen.

Eta bururatzeko erran dezagun, Pariseko gobernuak Madrilekoarekin eskuz esku doala, alde batetik Iparraldean gertatzen ari diren tirokadak gertatzera utziz eta gertatu ondoren tirokariak ez bilatuz. Eta gainera,

oraintsu ikusi bezala, hemen ditugun errefuxiatuen kontra ari dira. Espainol gobernuari berak entregatuz, Euskal Herriatik irtenafaziz, paperak ez berrituz eta hola. Ez dugu ahantzi behar ere, nola duela zenbait urte, Iparraldean egin plastikatzean ondortik arrastatuak izan ziren hobendunak edo libro utziak, edo guti gaztigatuak izan ziren edo oraino, Baionako Hauzitegiaren nahiaren kontra, orduko espainol kontsulak berak mugaraino eramane zuten Martinez

izeneko bat, bere autoa harmaz kargaturik hartzeman ziotena.

Dudarik ez da frantses gobernariek eta Ipar Euskal Herrian dituzten muti interesatuek, ez dutela Hego aldeko sua Iparraldera hedatzera utzi nahi, baitakite arras ongi zenbait mende hontan beren zangopean daukaren euskal koloniak ere beregaintasun edo askatasun egarri bizia ukanen duela luze gabe, baldin bide horretatik joatera uzten badute.

GEAXAN LANTZIRI

SORIATIK ETXERAINO



Urtarrilaren 25ean preso bi irten ziren Soriako espetxetik. Gurutze Gonzalez Armiñanzas eta Tomas Gomez Casado. Asken honekin mintzatu gara, erdaraz, euskaraz egiteko ez baitu presondegian aski ikasi. Otxarkoagakoa da, hemeretzi urtekoa eta langile kablefaktorea. Hiru hilabete baino gehiago iragan ditu garatzelan.

Zer moduz?

Orain ondo, oso pozik, irten ondoren. Iragan izan dudan egoera txarrean pentsatzen dudan arren, eta gelditu direnengan.

Noiz sartu zintuzten?

Urriaren hemeretziaren. Gaueko ordu batetan, lau polizia etorri zitzaizkidan bila, ez nengoen etxean baina heldu nintzenez harrapatu eta Indautxuko komisariara eraman ninduten.

Zenbat denbora interrogatorioan?

Gau hortan ordu bietatik goizeko zazpiak arte interrogatu ninduten. Gero kalabojoetara eraman ninduten joka grisek eta ordu bete ondoren berriz ere interrogatorioa. Arratsaldean ere berdin. Eta honela bost egunetan.

Noiz irten zineten komisariatik?

Seigarren egunean goizeko hamarretan deklarazio bat zin erazi zidaten mehatxuka, pistola bat ipini baitzidaten bekokian.

Arratsaldeko seietan eraman gintuten Basauriko espetxerantz.

Espetxera eramaterakoan kolpeka aritu zirela esan zen...

Basaurira eraman gintuztenean lau furgonetak eskoltatzen gintuzten. Berrogei bat polizia genituen sei detenituentzat.

Mahatxuka aritu zitzaizkigun etengabe eta espetxerako sarreran hogeitatu minutu kolpeka ukan gintuzten.

Basaurin zer moduz izan zineten?

Hogeita lau geunden militarren komunan eta hamasei bat politiko-militarrean. Hemen bizimodu aski normala egin genuen. Urriaren 25ean sartu ginen eta abenduaren 27ra arte egon ginen.

Irteteko zinen ia egun hoietan...

Bai, baina 27an, goizaldeko bost eta erdietan espetxeko zuzendaria agertu zen eta trasladatu egin behar gintuztela esan zigun. Inuzentean

eguna aurreraturik ote zen galdetu genion... Baina guardia zibilak heldu eta oheak deseginik eta arropak harturik, gu oso urduri ez baikenekien nora eramaten gintuzten, furgoi-tara joan ginen.

Soriaraino. Ez dea?

Bai. Ailegatzerakoan 300 bat gris eta 300 bat berdek eman ziguten ongi etorria. Galeria eta zeldatan sakabanatu gintuzten eta 24 bat ordu ukan gintuzten zeldetatik irten gabe.

Geroago, zer egiten zenuten normalean egunero?

Beti berdin. Goizeko zortziretan jaiki, bederatzirak arte zelda garbitu, bederatziretan gozaldtu, hamarretatik hamaikak arte libre, hamaiketarik ordu batetara patiotik paseiatu, ordu bietatik bietara galerian, ordu bietan bazkaria, ordu bi eta erdietatik lauretara galerian siestan edo...

Laurak eta laurdenetatik seietara patioan, harik eta zortzirik arte libre eta gero afaltzera. Bederatzietatik hamabietara telebista ikusten edo...

Funtzionarioez aparte ba al zen poliziarik espetxe barruan?

Noski, Barruan ziren guztiak, asko. Basauriko sarreran kolpatu gintuen konpainia berbera zen Soriano era zaindaria.

Eta gutunak, bisitak eta horik...?

Gutunak, heltzen ziren guztiak sartzen ziren, baina zentsuratuak. Euskaraz ez, euskaraz zatekeen oro ezabatzen zuten. Guk gutun bakar bat bidali ahal izaten genuen astero.

Bisitak senitartekoenak bakarrik. Adregia era joan ahal zen, baina herriko apaiz eta alkartearen baime-narekin. Bisita bakoitzean lau pertsona bakarrik sar zitezkeen, astero behin. Niri asteazkenetan...

Euskal Herrian pasatzen zenan enteratu izan zarete?

Egunkarien bidez, baina egun bi edo hiru beranduago. Irratia entzun ahal zen, baina S. E. R. katea bakarrik. F. M. eta horik deus ere ez. Telebista ere bederatzietatik aurrera. Eta larunbat gaueko filmea ikusteko instancia bat idazti behar zitzaion zuzendariari...

Zenbat zeundeten Soriano?

106 bat ginen. ETAmilitarrekoak gehienak, 60 bat, pmak 28 bat eta baita ere 14 bat autonomo, 2 pm eszinditu eta independente batzuek. Astero behin bakarrik egon ahal ginen batera.

Istiluak ere izango ziren zuen artean

Eztabaida eta istilu ideologikoak ba ziren talde desberdinean artean. Hortik aparte arazo pertsonalak ere... Baina hau beste arazo bat da.

Espetxeko kondizioetaz zer...?

Oso larriak, etsigarriak, jasangaitezak. Telegrametan ere esaten genuen. Zakurrada barruan delako, barruko tentsioagataik, herritik urruti gaudelako, elikadura desegokiagatik, kanpoekin komunikatu ezinagatik... Oihu egitea ere debekaturik dago. Esmatu eta ezin izaten nuen eguna hasi irain bat bota gabe.

Nola irten zara?

Fiantzapean, 40.000 pezeta depositatu ondoren, eta hileroko batean eta hamabostean jukatuan presentatu behar naizelarik. Ostegunetan irten nintzen, urtarrilaren 25ean. Juizioaren esperoan edo, baina ez dakit noiz izango den.

Otxarkoagara itzuli eta zer egin duzu egun hauetan?

Amak lau egunetan entzerratu eduki nau etxean, gaur arte.

Lantegian onartu zaituzte berri ere?

Bai, kablefaktore lanean jarraituko dut lehengo leku berebean. Aste hontan hasiko naiz lanean.

Eta bestelan zer? Zer plan duzu...?

Ba, ostegunetan, otsailaren batean, jukatuan presentatu behar naiz. Ostiralean Basaurira joateko eskatu didate amnistiaren aldeko biltzarre batetara. Ba hori...

Harritu naiz kaleak poliziaz hain beteak ikusteaz. Oso zaila da arazoa, baina ea preso guztiak ateratzen ditugun. Orain da garaia...

HISTORIA TRISTE BAINA BENETAKOA

Telesforo Montzonen gartzelatzearekin bukatu den prozesua, nahiko argi agertu da egunkarietan. Gartzela barruan eginiko komunikatuak ere ezagunak dira. Horregatik eta zerbait desberdin egiteagatik, ekintza horretan gertaturiko gorabeherak, bertsotan kontatzea pentsatu izan dut. Baina irakurtzerakoan, bertsoak kantatzeko direla jakin behar du irakurleak. Ea, ba, zortziko nagusiarekin erabiltzeko dauden doinuetariko batekin kantatzen diren! Eta bide batez, bertso hau Telesforoganako errespetu eta solidaritatearen agerpena izan daitezela, zeren berarekin egondako beste guztiok ere, berak egin dituen ekintza berbera egin baitugu. Ordea, hemengo justiziaren desjustiziagatik, bera zigortu nahi izan dute, horrela gure sinbolo baten aurkako iraina egiteko asmotan edo. Baina Telesforok ba daki, burrukan segituko dugula, irabazi arte.



Bertso hauekin agertu nahi dut gertatu zaigun kontua, pentsatuz beti alaia dela burrukarako kantua. Euskal Herria txiki izanik ez da inola tontua eta gogorki azaldua du seme zintzoen zantzua

Ostiralea izan omen zen guztiontzako eguna, eguerdi aldean denak batera aurrera egin duguna. Diputazio barrura sartu gure Herri Batasuna. "Etor dadila hitz egitera etxe honetako jauna".

Ba dira jaunak, bi guttienez, baina ez dira ausartzen. Eta laisterka saiartzen dira bide zidorrak kurritzen, gure begien bistatik ongi lotsa gabe izkutatzen. Problema alde batera utziz ez dira, jaunok, konpontzen. Berehalaxe etorri ziren, guztiak kaskoarekin.

Goiko ordenak zirela eta behar genula aldegin. Gure aldetiko erantzunaz ez zuten hartu atsegin eta atera izan gintuzten itxura demokratikoa.

Kaleratuak izanagatik ez da amaitu ekintza Autoa hartuz, Donostiara zuzendu dugu urratsa. Udaletxean jarria dugu hortarako esperantza. Aurrerantz, bada, adiskideok horretan ez da zalantza.

Agintariak hartu gaituzte hitzez itxura onean. Gela ederra eskaini ere, moketa fina lurrean. Hitzak ederrak gauzak uzteko, ahal delarik pakean. Gero txakurrek bota gaituzte, gestorakoan aurrean.

Berriro ere biharamunean, oraingoan Gasteizen, birugarrengo ekitaldia muntatzeko asmoa zen. Diputazio baino hobetarik gure eritziz ez baitzen,

modu onean barrura sartuz, presoan alde gengozen.

Lehendakariak mintzaturik lasai ginen gu geratu Horrela, bada, ez geneukan beraz ezertan kezkatu. Modu honetan Kazetariak prentsaurrekoan elkartu ta inolako presarik gabe genien dena kontatu.

Bertan geundela heldu zitzaigun miñoen komandantea, bere ahoa hitz goxo, bigun eta ederrez bete. Kalera isilik irteteko egin zigun gonbitea baina horrela ez da apurtzen lotzen gaituen Katea.

Minutu pare pasatu eta gizontxoaren zarata: "Hiru minutu daukazue" huraxe zen txalaparta. Zutik jarri da Telesforo 'ta diotso zirt eta zarta: "Geure kabuz ateratzeko, ez hiru ta ez hamaika".

Nazional adjetiboarekin pilo ederra sarturik, baktzarentzat bi zirelarik alde banatan jarririk. Komisariarako bidea jende guztia bildurik, furgoi grisean hartu gaituzte guztiok deteniturik.

Kalabozuak, behekaldean, leku itsusia zinez, han minutuak eta orduak pasatuzten dira nekez. Sei metro luze, lau metro zabal zeukan gureak gehienez; hamabost gizon hor egoteko, horixe ez da ezer ez.

Emakumeak ere ba ziren gurekin batera gogor. Burrukalari zintzo izanik, hori ez dira edonor. Beste gelatxo ttiki batetan sartu zituzten denak hor. Hoiien laguntzaz askatasuna benetan daitekela lor.

Bi egun pasa genituen han umore oso onean. Hainbeste lagun berri ekarri

ziguten lehen gauean. Eta azkenik beste multzo bat berriro ere igandean Lekurik gabe, lo egin zuten aurreko pasabidean.

Antza dagoenez, juezek ez dute lanik egiten jaietan. Horregatikan astelehenean esna gaituzte seietan Ametsak alde batera utziz, juezaren pare hizketan. Berbaldi horik ez dira izan oso luzeak benetan.

Euskaraz mintzo, eta juezak gaztelania ez dela beste galderarik egin gabe atera gaitu berehala. Gure hizkuntza nazionala ongitxo ikas dezala Araba ere euskalduna zen agertu arte Gazteia.

Egintza bera burutu arren zigorra ez da berdina. Batzu kalean ipini ditu, juezak dirudi sorgina. Gure burua altxatu gabe egin du jugada fina. Ez zenuke horixe egingo oso faxista ez bazina.

Gero berdeak etorri dira grisen eskutik kentzeko esposa batzu beren eskuan geure eskuak lotzeko Nanklareseko gartzela hontan penarik gabe sartzeko, indar izugarria ikusiz gu guztiok beldurtzeko.

Hamaika jarri kalean eta bestea utzi barruan Erabakiaren esangura ez zaigu sarzen buruan Hori intsultu bat izan dela esan dezagun altuan Horrelakorik ez da izango Euskal Herri askatuan

Jaun agurgarri eta zintzoa sarturik espetxera, herri xehean sortu nahi dute beldurra eta ikara Baina Montzonen bidetik gora aurrera joango gara, burruka egiteaz aparte ez baitaukagu aukera.

TXISTU-DANBOLINEZ (I)

Tradizioak eskatzen duenez, Ur-tarilaren 8 an, eta Bilboko Areatzeko kioskoan, gure txistulariek, Boniren zuzendaritzapean entzumena ferekatu egin ziguten. Txaloak ugari jaso zituzten. Guk ere, kontzertua eskertzeaz gainera, Bizkaiko Txistularien Elkartearen ordezkaria den Jose Manuel Martinez Lizaraburugana jo dugu, **Anaitasunaren** irakurleei hain gurea dugun txistuaren bizitza eta gorabeheren berri emateko asmoz. Iturribide 14garrenean gaude, Txistularien Elkartearen ordezkartzan, halegia. Igogailurik ez dago eta, antsalkor heldu naiz. Txikito bat eskaini dit J. Manuelek. Nik, telefonorik ote dagoen galdetu diot, norbait deitu behar dut eta. Ez, ez dagoela

—Pobre gara elkartekoak: jasotzen ditugun kuotaxoez ez gara holako luxuetaraino heltzen” diost.

—“Eta gainera” —diot nik neure baitan— “zertarako telefonorik txistu eta ardoa badauzkate”? Harira goaz. Nonbait (1) txisturik zaharrena 20.000 urte duela eta Isturitzen aurkitu zela irakurri dudala diotsat. Baina ez gara antropologiaz ari izateko asmotan etorri. **Anaitasunak**-Nola eta noiz sortu zen Txistularien Elkartea?

—**Jmek:** Arraten, 1927. ean, garai hartako zenbait txistulari bildurik. Urte haietantsu hasi ziren beste alde batetik, txistularien bandak (lehen txistua, bigarrena, silbotea eta atabala) eratzen

—Anaitasunak: orduan bandak sortu arte nola jo izan zen txistua?

—**JMek:** Lehen, txistua atabalarekin. Gero bi txistu, bikotez, atabalarekin.

Silbotea noiz jo zen lehendabizi ez dakigu. Aurreko mendeko azken urteetan erabiltzen zela bai, ordea. Silbotea agertu gabe, urte haietako bandak senitarkeok edo udaletakoak ziren. Eresgailu horen agerpenak problema bat zekar kien azkenengo hauei: udalen langile sailen zabaldu beharrarena halegia.

—Ak: Barka. Ea diskogailuarekin batera mundu honetara jaiook ezin soma dezakegu zertarako beharko zukeen udal batek txistulari banda bat...



Boni eta J. M. Martinez txistulariak Bilbo alaitzen

—**Jmk:** Betekizun askotarako, noski: ospakizunetan alkatea eta zinegotziak laguntzeko, erromerietarako...

—**AK:** Txistularien Elkartearen eraketaz ari ginen. Euskal Herriko probintzia guztietako txistulariek hartu zuten parte?

—**Jmk:** Horixe

—**AK:** Eta zer zela eta, ikusi zuten txistulariek elkartzeko beharra?

—**Jmek:** Hasteko, partituren roblema zen. Txistulari batzuk ez zituzten beste batzuren doinuak ezagutzen eta erreperitorioak oso mugatuak ziren. Ba zen, noski, bere gogoko txistulari bat edo biren entzutearren txango luzeak egin ohi zituen txistularirik. Noizean behin txistulari batek bere musika-sailaren pieza bat kopiatzen zuen, beste txistulari



batentzat, pta bat jasoz. Dakusazunez, txistularien arteko harremanak murri-murriak ziren eta berekaxakoak Hori horrela zelarik, Sandalio Tejada izeneko Bizkaiko txistulari batek egin zuen Arraterako deia. Ideia bera, Mungialdean sortu ei zen Arraten hogeit'hamartsu txistulari bilduzen. Geroztik goi-mailako txistulari guztiak hasi ziren beren doinuak argitaratzen, txisturako musika-saila aberastuz, beste besterik ez dagigu guk ere gaur egun Elkartean

—Ak: Zehatz al dezakegu txisturako idatzi zuten konposatzaile haietariko izenik?

—JMK: Ba, Guridigandik hasita, denak

—Ak: Arrakastarik izan zuen Elkartek?

—JMK: Besoak zabalik hartu zuten txistulariek: Elkartearen aldizkariari begiratu besterik ez dago. Laster hasi zen harpidedunen kopurua handitzen, itza txistulari guztiak sartu arte. Gaur ia 3000 gaude, erdi bat Bizkaian gaudela, ehuneko 30 Gipuzkoan, hogeit' Nafarroan, 10 Araban, eta gainentzakoak Ameriketan eta Estatuaren beste probintzietan sakabanaturik daudela.

—Ak: Nola azal daiteke Bizkaiko ehuneko 50 hori

—Jmk: ...ez dakit. Dena dela biziki berpiztu da hemen txistu-

rako joera, jotzen dutenen kopuruari bagagozkio, kalitatearen kalteaz, nire irudiko.

Gauza bitxi bat gertatzen da gainera: Bilbon eta Ibaizabaleko hibaiertzeko herrietan kokatzen dela ehuneko 50 eko gehiengoa. Behar bada herri koskorretan txikietan baino errazago delako Txistulariren Akademia baten eraketa.

—Ak: Otsoa aipatu ta otsoa agertu: nola dabil txistuaren irakaskuntza?

—Jmk: Lehen familietan ikasten zen. Ba da, izan ere semei beste inori txistua jotzen irakatsi nahi izan ez dionik, eta hor dirau hainbeste familia txistularik: Gipuzkoako Ansorenak. Arabako Askasok eta Olaetak, Batzango Elizaldeak, Bizkaiko Landaluzek... Baina azkenengo hauek beste askori irakatsi zioten, zorionez. Gero Musikaren Akademiek ere onartu zuten txistua. Udal-akademiek daude ere.

—Esan beharrik ez dago ere, Frankismoak txistua suntsitzen ahalegin guztiak egin zituen Orain, txistuaren berreskurapena Euskal kultura beraren berreskurapenaren zati bat besterik ez da.

Gainera egun, txistua ondo landuta daukagula esan daiteke elakoan nago, batez ere gainontzeko xirula folklorikoekin gonbaratuz gero. Ba daude Salaman-

can, Huelvan, Balearetan eta abarretan, txistuaren antzeko xirula batzu, baina ez dira txistuaren ahalmenetaz jantzi izan; oso primitiboak geratu dira, ez dira txistua bezain trebatu izan.

Gaur idazten diren obrek, musikaren oinarri sendo bat eskatzen dute.

Donostiako Kontserbatorioan 6 ikasturtetan moldatu da txistuaren ikaspena. Hau baina, hots, txistua kontserbatorioan sartzea beste inon ez da lortu: Donostiako Akademia, eta Kontserbatorioa Diputazioarena dugu.

Donostian, hain zuzen, jadanik mitiko bihurtu zaigun Ansorena haren biloba batek, J.I. Ansorenak, lortu du oposizioz Kontserbatorioko txistuaren irakaspenera zuzendaritza.

—AK: Orduan, txistua landu egin zaigu, baina orkestan sartzeko adina?

—JMK: Hortarako Txistuaren Fa sostengatuaren afinaketa aldatu behar izan zaio, Fa naturale-raino jeitsieraziz. Bonik berak, hain urrutira joan gabe, hauetariko txistu batez jo du askotan "Amaia"ren ezpatadantza orkesta eta guzti, arrakasta handiz.

Txistu klasikoa, ordea, bere jatorrizko afinaketarekin darrai.

BORJA BARANDIARAN
(jarraituko da)

EUSKAL TELEBISTARAKO

Noizbait ere somatzen da Euskal Herrian euskal irrati-telebistarako kezka eta min bizia. "Iraultza ala hil" esaten euskaldun era euskal telebista ala hil" ere beharko da esan Euskadik euskaldun era euskal Herri bezala iran era berpiztu nahi badu. Dagoeneko jokatuko du hauteskolonialismoaren barnean RTVEk diskriminazioz jokatu dena Frank Otxoa da, Euskal kude kanpainarako telesaioak banatzean. Gehiengo, erdirakoi eta parlamentariak izaneen dituzte soilki ordu onak. Gipuzkoa aldetik gehien bat mugitu dena Frank Otxoa da, Euskal Zinegileen Elkartekoa bera, LAB sindikatukoa, era euskal irrati-telebistaren arazoa eta zionalean dihardu. Horregatik, eta euskal irrati-telebistaren arazoa eta urrabideak harrotzeko, elkar ikuska Frank Otxoarengana jo dugu.

IRRATI TELEBISTAREN GREBAZ

—Nolako garrantzia izan zuen oraindik orain irrati telebistakook egin zenuten grebak?

—Frank-Handia. Espainian lortu den irrati telebistako lehen greba bilakatu baitzen. Bunkerraren habeak erortzen hasiak dira.

—Gai honetan arrunt garenok ez dugu delako "profesional erreklasifikaziorik" konprenitzen.

—Frank-Halegia, irrati telebistako profesio desberdinek profesionari bereziak betatzeko erizpidea baizik ez da eskatzen. Oraindik ere erantzukizun handienetarikoa karguak eta profesio bereziak lehengo (frankista eta) txaketero leialez beteak aurkitzen baitira. Profesionaltasuna da langileok exijitzen dugun erreibindikapen nagusienetarikoa.

—Baina, estatu mailan profesionaltasunari dagokiona exijitu baduzue, lortu ahal duzue ezer Euskal Hermirako?

—Frank-Bai, Gipuzkoa ta Bizkaiko langile gehienok, LAB, ELA eta CC.OO.k izenpeturik agiri edo alternatiba bat atera genuen. Ageri hau EGIN egunerokoan argitaratu zen.

—Greba horrekin zertan aurreratu da, bada?

—Frank-Lehenik Herria, alderdiak, kultur taldeak, e.a. kontzientziarazten lagundu. Kontutan hartu behar da, greba Madriletik kanpo, nazionalitateetan indartu zela, hau da, Canarias, Catalunya, Galiza ta Euskadin.

—Eta zertan dago Espainiako irrati telebistaren korrupzio arazoa?

—Frank-U.C.D.k ba zekien jakin irrati telebistaren korrupzio eta lardaskeria, eta iritsiko dela garbiketa bat egiteko garaia. Berraz, aurea hartzen du, eta garbiketa baten orde bere komenientziko moldaketa bat egin nahi izan zuen. Beste alderdiak ere, ordea, ohartu ziren komunikabideon garrantziaz eta horien eraginez eratu da korrupzioa garbitzearren Inkestarako Batzordea.

—Eta, euskal langileek ba ahal duzue parterik Batzorde horretan?

—Frank-Gu ere dossier eta erizpide batzu bidaltzekotan gara.

AURREPROJEKTU OFIZIALAK

—Noren menpe edo eskupean geratuko ote irrati telebistaren katea?

—Frank-Bi aurreprojeckturu sortu ziren Gorteetan (hurregoetan beharko) erabakitzeke. Bata U.C.D. rena, eta bestea, P.C.rena. U.C.D.ren aurreprojeckturu guztiz erdirakoiak da, eta nazionalitateentzat ez da autonomia zirrikiturik ere uzten. Zirrikiturik, berriz, irrati-telebistaren pribatizatzeari irekitzen zaio, baina nazionalitate edo erakunde autonomoak, inola

ere, kontutan hartu gabe. Horretarako, orain arte irrati-telebista entrepresa bakarra dena, lau entrepresatan banatuko litzateke, telebistako kanal bi, eta irrati kate bi.

—P.C.renari hobe ahal deritzozu?

Frank-P.C. rena, bere txarrean, erosoagoa da. Tamamesek aurkeztu bazuen ere, ba dirudi Catalunya PSUC-ek eratu duela aurreprojeckturu, eta horientzat irrati-telebista Estatuak (parlamentuak) kontrolatua, pluralista eta nazionalitateetan dauden erakunde autonomoak kontrolatuko lukete. U.C.D.rena baina aurrerazalegoa, U.C.D. argi baitabil PSOEk boterea jasotzerako komunikabideon pribatizatze errazten.

—Baina, gorte zaharrak deuseztaturik eta hauteskunde kanpaina honetan zer gertatuko da aurreprojeckturu horiekin?

—Frank-Gelaturik geratu dira aurreprojeckturu biak. Areago, U.C.D.k ikusi du hauteskunde kanpainarako komunikabideon garrantzia eta beharra, eta aski

URRABIDEAK



leundu du langileekin greba ondoren zuen lehen jarrera. Beste greba batean ekitekotan ginen, baina, U.G.T.koak ere bere hortan utzi nahi dute dena, hauteskundeetako kanpainaren pribilegioak zaindu beharrez.

EUSKAL IRRATI-TELEBISTA URRATZEN

—Gatozen Euskal Herri. Euskal irrati-telebistarako mugimendurik nabari al da?

—Frank-Deus gutxi, baina nabari da. Euskal irrati-telebista oraingoz helburu nagusi bat baik ez da. Hortaratzeko bi aldeta ekin behar dugula deritzot. Alde batetik, dagoeneko irrati telebistatik euskarazko orduak, e.a. eskuratzen autonomia bat lortu arte. Baina bide hau luzeegia, aspergarria eta bihurria gerta da, kioke euskararen agoniari. Eta, oinarri oinarrizko pausoak eman ez abaitu beharko dugu. Adibidez, Banco de Bilbaokoek langile-

entzat telebideo istudio bat muntatzeko dira. Hortik erasotzea zuhurra litzateka Telebideo istudioak sortu, euskal programaketak areto itxietan ematen hasi e.a.

—Euskal Kontseilu Nagusiak edo... ez ahal du hontaz deus egin?

—Frank-Euskal Zinegile Elkar-teak ihaz presentatu genuen euskal irrati telebistarako lehen alternatiba bat, eta harez gero deus egin ez eta ere, ba dirudi azken bolara honetan Iñigo Aguirre, Donostiako Diputazioko Olaizola haindik hona mugitzen hasiak dirrela. Baina, benetako irrati telebistarako lehenik euskal alternatiba bat egin behar da, giza ta teknik azpiegitura bat sortu, eta kanpaina bizi ta herrikoiak bul-

tatu. Azken batean herri borroka batez lortubeharko da euskal irrati-telebista.

—Zer deritzozu euskal irratiak oinarri bezala?

—Frank-Experiencia motzak dira. Herri Irratikoa da interesgarriena, baina alternatiba orokor baten barnean ezarri behar dugu. Arratekoa euskaldunegia zelako itxi egin digute, eta Segurakoa, berriz, OPUSen eskuetan erori omen da.

NAFARROAN, 10.000 pertsonentzako basilika

Nafarroako Diputazioak, lege guztiak hankartetik pasatuz, lurpeko basilika bat egin nahi du Xabier herrian. Denok dakizuen, Frantzisko Xabier Deuna herri horretan jaio zen, eta jesuita zenez gero, Jesusen Konpainiak eramaten du gaztelua eta orain dagoen eliza.

Diputazioak egin nahi duen basilika hori, 10.000 pertsonarentzat izango da eta 224.430.545 pezeta kostatuko da.

Projektu hau, Diputazioko presidentea den Amadeo Marcok eta Jesusen konpainiako Recondo aitak prestatu dute. Dena isilean egin dute, eta konfabulazio guztiak bezala, ezkutuko eskutitzak ere erabili dituzte.

Gaurregun, Xabierera urtean bi aldiz joaten dira nafarrak, peregrinazioan, eta beste egun guztietan ia inor ez da agertzen. Gainera, peregrinazio baino erromeria katxondoa da gehiago.

Hala ere (Jesuitak oso negoziante baitira) basilika hori egin nahi dute.

Zorionez, protestak ere hasi dira. Iruñeko udalak errekurtsu bat egin du proiektu horren kontra, eta beste zenbaitek ere bai.



Faxista bat gutxiago

Julio Rodriguez, Francoren garaian Hezkuntza Ministeritzako buru izan zena, Santiago de Chilen hil da. Giltzurrietatik operatzera joan zen Txilera, eta ebaketa egin zioten ondoren... hil egin zen.

Julio Rodriguez jarri zuen martxan "Juliano egutegia" famatu hura. Horren araueraz, ikastaroak urtarrean hasen ziren unibertsitate guztietan eta irailean bukatu.

Julio Rodriguez, Pinotxeten ondoan hil zen.

Norbait hiltzen denean sentitu egiten da, baina batzutan, poza sentitzen da.

Denei ailegatzten zaie ordua, laster ala berandu. Faxista bat gutxiago.



Paroaren irtenbidea polizia sartzea da

Madriko egunkari batetan iragarki hau jarri zuten: "1.250 polizia harmatua gehiago behar dira! 45.000 pezeta soldata! Epea bukatzen da!".

Orain arte polizia gutxi genuen eta horrengatik beste multzo bat kontratatu nahi dute. Kondizioak oso errazak dira: taila 1'70 metro eta espainola izan. Gainera "lau erregelak" jakin.

Euskadin paro asko da eta anuntzioak edo iragarkiak hemengo egunkari eta aldizkarietan jarriko balituzte, segur aski jende asko apuntatuko litzateke. (Komaidios).

Hala ere, ez dugu larritu behar. Laster, polizia autoktonoa edo bestela polizia probintziala, jarriko da Euskal Herrian eta orduan apuntatuko gara.

Orduan, euskal prentsan (ZERUKO ARGIAN eta ANAITASUNA), eta EGINen eta DEIAN, Consejo General Vascok konbokatuko ditu plazak, iragarkiak jarriko ditu, eta... poliziarako apuntatuko gara. (Komaidios).

Paroaren irtenbidea hau da!!: polizia sartu!!

GURETZAKO
LANIK EZ DAGO,
BAINA HAUEN-
TZAT GERO ETA
GENIAGO

1.250 POLICIAS ARMADOS
45.000 pesetas al mes
¡Regalamos los programas y las instancias!
¡El plazo se acaba!
¡SOLICITUDES HASTA EL 21 DE FEBRERO!
Talla: 1,70 metros



"Abertzale" hitza Andaluzian erabiltzen dute

"Abertzale" hitza internazionala bihurtzen ari da. Euskal Herriak, eta euskarak batez ere, hitz eta bokablo gutxi exportatu du, baina orain "abertzale" hitza exportatzen hasi da.

Orain dela egun gutxi, Andaluziako PCE-k deklarazio batzu egin zituen bere diputatu ohiaren bidez, Fernando Sotoren bidez:

"Nuestros 'abertzales' de pitimini se permiten escribir que en Andalucía votar a UCD es innecesario, votar al PSOE arriesgado y votar a PCE resulta inútil".

Deklarazio hauk, Andaluziako PSA (Partidu sozialista) zentralisten kontra egiten hasi den kanpaina baztertzeko egin zituen Fernando Sotok.

Hona, bada, Andaluzian ere politikoak hasi dira "abertzale" hitza erdaraz edo espainolez erabiltzen. Eta gainera "TZ"-rekin idazten dute.

Segur aski, ez dute ongi ahozkatuko edo pronuntziatuko, baina notizia hor dago: Andaluzian "abertzale" hitza erabili egiten dute.

Hemendik denbora gutxitara, Espainol Hizkuntzaren Akademia Errealak bere hiztegian sartu egingo du hitz hori. Baina, zein definizio jarriko dio?



1984ko 2/2 Inaki Zabaleta

DEUSTUKO

IKASLE BATEK BERBA

Deustu berriro ere itxia daukagu. Berriro ere agintaritzaren bakartasuna ikusi dugu agirian: inoren eritzia haintzat hartu gabe, beheko inork hautatu ez duen errektoreak, behekoentzako ona izan behar dena agindu du. Behekoek, uler dezagun ahal bait lasterren, ez dakite. Deustuko bizitzan duten betebeharrak bakarra, zera da, entzun, ordaindu (urtean urtean geroago eta gehiago, alegia), ta ixilik jasatea. Besterik ez. Goikoek dute buruargitasunaren monopolioa (Deustun Izpiritu Santuaren emaitza berezia, noski). Espainiako Estatu Legeak gazteen adin nagusigoa 18 urteetan ipini badu ere, Deustuan adin nagusigoa ez da inoiz ere jadesten: goikoen aldean ikasle guztiok betirako ipotxak gara, nahiz eta berenatariko batzuk semerik eta edukiz. Orain hain sarritan ikusten dugun enpresarial bunkerraren antzera, Deustuburuek ez dakite elkar hizketan jartzen, jakintzaz josirik dihardutelarik ahaztu dute entzuten, eta beren hitz bakarra da hango monologo jakintsua, hango lege santua: ikasleei jaramonik ez, ikasleek edozein egindakoa zigorgaia bihurtzen da, berez eta legez. Atzo lau zigortu, gaur berrogei, bihar denok agian Ekaineko azterketak galdurik, kalean, eta emandako dirua berriz atzera itzuli berririk.

Honek ez du merezi gehiago luzatzea, nik uste. Bakarrik hauxe dut esateko, ea non demontre geratu den ikasleen mugimendua eta sindikalgintza. Franco-ren aldian (Francorekin holakorik ez zen jazoten) esan beharrik guk ere?) alderdiek polito sartzan zuten eskua ikasleen mugimenduan, eta hau dela eta, gure mugimendua ikasleen interesak

zaintzen ez zituzten borroketan alferrikotu zen, apika. Orain, zorioneko demokrazia honetan, alderdiek ez gaituzte behar, ez dute gu kaleratzeko beharrik, eta laster ahantzi gaituzte.

Inoiz jakinen dugu ikasleek guretzakoa, lehengo eta behin, gordetzen? Noizko guk behar dugun Sindikatua, alderdikeriatik urrun urrun?

EXPEDIENTEAK BERRIRO ERE

Deustuko unibertsitateak bertako lau ikasleri espedienteak zabaldu dizkie. Ikasleak "Colectivo Tomate Rojo" izeneko elkarteak dira. "Colectivo" elkarteak orma iragarkiak eta egin ohi dituzte, guztiak gatz eta biper ugaziz.

Baina besterik ere egin izan dute; hala nola, azken bi urteotan, Franco generala zenaren omenezko ospakizun bikainak.

Eta aurtongo Urtarrilaren 13an San Kanutoren eguna ospatu dute goraki, berriak eta ikasle multzo haundixka batek.

Baina hemen egon da kokka, zeren San Kanuto Suekoen saildaria da, eta enbaxadak protesta bat bidali du Unibertsitateari, suekoen debozioak errespetatzeko eskatuz.

Eta Madrileko prentsak Deustuko Unibertsitatean "Meza Beltzen" bat eman zen kontua zabaldu du, eta noski irakurleak ikaraturik geratu dira.

Hau guztiau dela eta, Aita Arantzadi Errektore Jaunak espedienteak egitea erabaki du. 29an bildu zen horretarako epai mahaia.

Baina ikasleria ia oso osorik ez dator bat jokabide honekin, eta 19tik honantz protesta gisa, Komertzialeko aberaskilokumeak eta Deretxokok batzu ezik beste guztiak ez doaz eskoletara.

Liburutegi Nagusian it-



xialdi bat egiten ari dira zenbait ikasle, beste guztien laguntzaz. Ikusteko dago gatazka zertan geratuko den. Arazoa oraingoz pil-pilean dago.

ENEKO SAGARZAZU

FAKULTATEETAN GREBAK

Bilboko Unibertsitateko euskal koordinatzaile eta irakaslea den Jose Ramon Etxebarria, eta berarekin Euskal Herriak bere nortasuna gordetzeko burrukan atxiloturik izan ziren guztiak, berehala askatuak izan zitezten, agiri bat bota genuen prentsara.

Era berean Zientzia Fakultateko Jose Ramonen hainbat ikasle hertsialdi batetan hasi zen, batzu Zientzi Fakultatean bertan, eta beste batzu Bizkaiko Diputazioan. Azkenengo hau bortxaz aterata izan ziren eta Bilboko Udaletxean sartu. Hala ere, egunotan Bilboko fakultateetan hainbat izan da greban.

Irakaslego Eskola Normala 45 ikasle gose greban.

Zientzi Fakultatean: J. R. eta lagunak askatu arte.

Medikuntza Fakultatea: Basurtuko ikasleen problema dela eta, Hospitale kliniko bat lortzeko.

Deustuko Fakultateak: Beren ikaskideen espedienteen kontra.

MONTZON PRESO

Telesforo Montzon Olaso, Bigarren Errepublikaren saioan, Euzkadiko gobernuan, Barne Arazoetarako ministraria izanikoa, geroztik Franco hil arte atzerrian bizia eta politiko eta kantagile legez biziki ezaguna Euskal Herrian barrena, Arabako Oka Langlareseko presondegian dago.

Herri Batasuna koalizioko beste hamabi partaideekin batean sartu zuten preso, Euskal Herriaren errepresio egoaririk protestatzeko egin hitxialdiagatik. Arrarona zera izan da, beste hamaka libre utzi eta bera bakarrik uztea barnean, nahiz eta horietatik gauztietatik bera, seguru asko, ezagunena izan eta denei botatzen zitzairen akusazioa hama-bientzat berdina izan.

Gizon honi salatzen diotena, aski abstraktua da: "apología del terrorismo". Hau guztiau are harrigarriago egiten zaigu, hauteskunde kanpainen sarturik gaudela pentsatuta eta gainera, Montzon H. B.-ren Gipuzkoako kandidatura lista buru dela kontutan harturik, gobernuak torpeziaz jokatu duela ematen du. Ez dakigu UCD-ren gobernuak zer lortu nahi duen gartzelaraketa honekin, ematen baitu H. B.-ri dohainiko propaganda egiten ari zaiola. Beste ikuspegi batetik ikusirik pentsa daiteke, hirurogei hamaburu urte beteak dituen gizon hau gartzelaratzean, UCD-k jokabide gogor eta irmoa erakutsi nahi duela, batik bat, eskuinaldeko botu gehiago bereganatzeko. Espero dezagun Montzon, beste euskal preso guztiak legez, laster libererik eta gure artean ikusi ahal izango dugula.



CGV-REN ESTATUTUA ETA EUSKARAREN DIGLOSIA

Hauteskunde sasoiari sartuta, mitintan CGV-k eginiko estatutuaren alde daudenak, errepikatzen ari zaizkigu, horrekin euskararen egoera diglosikoa superaturik geratuko dela.

Nork bere jarrera izan eta defendatzeko duen eskubidea errespetatuz, estatutu horrekin euskararen desagertzea konpontzeko dela esatea, gehiegikeria da nire ustez.

Aski da, Konstituzioaren mugetaraino ere iristen ez den estatutu horretan, euskarari buruz esaten denari begiradaño bat egitea.

Euskara ez da horretan Euskal Herriaren hizkuntza nazionala, beti pentsatzen izan dugun moduan, "propioa" baizik. Honen arabera beraz, eta Konstituzioak dioen bezala Hizkuntza nazional bakarra gaztelania da. Esaten da ere, Euskal Herriko —edo Euskadiko— erakundeek euskara eta gaztelaniaren erabiltzea ofiziala garantizatuko dutela, hizkuntza bien ezagumendurako neurri eta medioak jarri. Baina estatutuan ez da behin ere aipatzen, guk erabat premiazkoa dakusaguna, hau da, euskara Euskal Herriko biztanle guztiontzat ezagutzeko derrigorrezkotasuna. Ez dugu konprenitzen, bada, nola demontre supera daitekeen diglosia, gaztelania derrigorrezkoa dela Konstituzioak baiesten duen artean, euskara guttien guttienez maila baren jartzen ez delarik.

Bestalde, Estatutu horretan ez da inolako eperik ezartzen kargu publiko edo ofizialetan daudenek euskara ikas dezaten, eta arazoa orain arte hain argi erakutsi duguten intentzio onaz konpontzeko delako konfidantza geratzen da.

Edo guk ez dakigu estatutua irakurtzen, edo erabat kontzepzio desberdinak era-

biltzen ditugu diglosia hitzaz. Etab.

MARTIN ETA ENRIQUE TELEBISTAZ

Espainiako hauteskunde hauetan irabazle aterako bide den Alderdi Sozialistaren sozialismo moduz oraindik desengainaturik ez daudenentzat, agian, adierazgarri samar gertatuko zitzaiekeen, Martin Villa jaun ministro abialak eta Mugica Herzog-ek eskaini ziguten berbaldia, eta berbaldia diot, ez baitut uste hari "debate" edo eztabaida izena eman zekiokenik.

Euskal Herriko ehun preso baino gehiago Sorriako gartzelan gose greban dagoelarik Errefuxiatuekin gertaturikoa, egunero gertatzen ari diren detentzioak, pairatzen dugun okupazio militar nabariaren aurreko bidurra eta fartsa burutzeko Montzon gartzelan uztea, terrorismoaren apologia egitea akusatzen diotelarik, bada, hau guztiau ez da ezer gure sozialista prestijioarentzat, ondo egiten du Martin Villak haren ustez.

"Alternativa de poder" omen den alderdiak, ba du "terrorismoa"ren arazoari nolako soluzioa eskainiko dion ba dakigu, orain arte M. Villak eskaini dion berbera, eta orain artekoa terrorismoa sustraitik hiltzeko nahikoa izan ez baldin bada, soluzioa, polizia, bala pilota eta preso gehiago. Ondo da, baina Euskal Herriaren antiterrorista porrokatu hauei botua ematen dietenak, gero eta guttiago baldin badira, ez daitezela kexa.

1979eko UDA IKASTAROAK LAUKIZEN ARTEGINTZ HAUZALANA

Ehungintz, keramika, marrazki eta pintur lantegiak.

Goian aipaturiko eskulagintz teknikak ezaguterazteko asmoaz, Uztail-Agorriletan hilabeteko bi ikastaro intentsibori hasiera eman nahi diegu.

Ikastarook hurrengo erregelen arauera egingen dira:

Publikoari zabalik egonen diren lantegiak hauek dira: Pinturarena, 6 ikaslerentzat, gehienik jota; marrazki kalografikoarena, 4 ikasle; ehungintzarena (tapiz gabelino), 8 ikasle, eta keramika-buztingintzarena, 8 ikasle.

Noiz: Lehen ikastaroa, Uztailaren 2tik 31ra.

Bigarren ikastaroa, Agorriaren 2tik 31ra.

Astean 5 egunez emanen dira eskolak hilabete osoan, 2 lektibo izanik.

Orduak: Goizeko 9etatik eguerdiko 1erarte, eta arratsaldeko 4,30etatik 7ak arte.

Ikasleek lantegi ezberdinetara etor daitezkeen enkarguzko lanak "ordaindurik" egiteko eskubidea edukiko dute,

Matrikula Otsailaren 5etik Ekainaren 1erarte gelditzen da zabalik. Matrikulatzerakoan, osoaren % 25 aurretik ordaindu beharko da, hau da, 2.000 pta.

lantegiak, azken buruan, ikasleen egokitze duinaz arduratuko dira.

FORU DIPUTAZIOAK AZALA GARBITU

Bizkaiko Foru (titulu garbiak ez gaitu harrapatuko berehalak) Diputazioak etxearen kanpokaldea garbitu du. Oraintxe ari da azkeneko ikututxotan.

Ez deritzogu aldrebes egin duenari. Premia zuten eta zor zitzaiena eman die harriei: garbitasuna. Ormetako harriekikoa, bada, primeran bete du Bizkaiko Jaurerriko Foru Diputazioak. Gure eskuetan balego, ez genioke BIKAIN bat inola ere ukatuko.

Zinezko garbitasuna, ordea, egiteke dago oraindik. Eta noski, paretetako harriekin zerikusirik gabea da. Guk, Diputazioak bezala, garbitasuna hain gogoko dugunok haren barrua ikusi nahi genuke kanpoa bezain apain, txukun eta eder.

Ea noiz ekiten diozuen barrua eta barrukoak garbitzeari!

X. OTAZURIALDEBARRENA

TXIMINO ETA GIZONAREN ARTEKO ESLABOI BERRIA

Etiopian eta Tantzian egin diren ikerketetaz, gaurko gizonaren parienterik zaharrena izan litekeenaren zenbait aztarna aurkitu izan da. Aurkiketa hauen arauera, Tximinoa eta gizonaren arteko banaketa, ez zen, orain arte antropologo gehienek uste ohi zuten bezala, duela hamabost edo hogeita miloi urte gertatu, orain bost miloi baizik. Gizonaren agertzea lurraren azalean, askoz berriago litzateke beraz.

Oraintsu topaturiko izaki haren burua, tximinoaren antzekoa zen, eta eskeletoa jadanik tente ibiltzeko, gizona bezala.



ESTATU ESPAINOLAREN PROBLEMAK



Bi problema nagusi ditu gaur egun Espainiako agintariak (gaur arte UCD, bihar zein?): krisi ekonomikoa eta Euskal Herriko burruka.

Norbaitek galdetuko du, ea ez ote dagoen Gobernuak nahi duen gizarte moduan Euskal Herri askatu batentzat lekurik, beraz Gobernuak berak markatzen duen bidetik lortuz.

Askatasun instituzionalera gagozkiolarik, gaur arteko historiak du erantzuna. Historian zehar Espainiako agintariak Euskal Herria Espainia barruan integratzen saiatu dira, beti eta era guztietan. Mendetako botere harrapatzearen ondoren,

gure izanaren kontzientzia hartu eta erreibindikapenak planteatu ditugunean, berak arbuatuak izan dira.

Azken saiatzea 1936.ko estatutua, etengabeko negoziaketek desbirtuatu eta atzeratu zuten, azkenean gerrak bakarrik ekarri zuelarik. Baina hemen, et si beharrean indar berriak sortzen dira belaunaldi bakoitzean, baldin eta sugarra itzaltzen uzten ez ba dugu: hau da gure nortasunari, gure izan nahiari heltzen ba diogu. Euskaldunok ikasi genuen hemengoa gure problema zela, inork inoiz ez zigula beraz konponduko, hau lortzeko behar den kemena guk geuk

baino ezin genuela jarri. Baita ere bidean, historiaren bidean, gure herria pentsamenduz aurreratuz joan da, gizarte berri baten bila, ikusten baitugu gure desioak ezin izango ditugula bete gaurkoa bezalako sistema batetan. Gizarte berri hori gaurko, sozialismoa deitzen dugu, eta bere ardatz nagusia, gizonon heziketan oinarritutako gizarte berdintsuago bat, planifikapenean eta guztiok borondate aktiboan oinarritzen den gizartea da. Hala bada, gure herri hau Askatasun eta Sozialismo bila doa, berak lortzeko behar diren beste kimen eta ahalegin egiteko prest dugularik.

Espainiako Gobernuarentzat Euskal popularen nahi hau ezin onartuzkoak dira, inolaz. Gaurkoz behintzat inork ezin du garantizatu herri honen bilakaera politiko baketsu baten bidez guk nahi hauk lor ditzakegula. Bestalde, Gobernuak esku artean dituen mila medio erabiltzen ditu, gure nahiak itoartzeko eta bide batez, herri hau mapatik desagertzeko; irrati, telebista, egunkari, banku, lege, etabar, indar errepresiboez gainera. Hala ere daitekeena da Dabid eta Goliat-en arteko gartakari historikoaren antzerako bat izatea geurea. Gaurkoz behintzat Gobemnuak hor du problema bat, neurri politiko bidez konpon zezakeena, baina orain arte egurraz deuseztatu nahi izan duena.

Aipatu bigarren problema krisia da. Berau zehazki neurtzeko eta aztertzeko behar den beste datu eta ezagupen ez izan arren, bereizgarri nagusiak ikutuko ditugu. Espainiako agintarientzat oztopo izango direnak, nahi duten gizarte modua ezartzeko.

Aipa dezagun lehenik, denek aho batez onartzen duten fenomeno, inbertsiorik eza. Honek esan nahi du, dirua dutenek ez dutela inbertitu nahi. Idea garbiago bat izateko: bankudunak, dirua dutenak halegia, frankismoaren ume izan direnak, dira. Orduan langilea lotuta izateak permititzen zuen ehundako plusbalia ateratzea. Gaur ordea hau ez dago hain erraz eta ondorioz, plusbalia seguru eta nahikorik gabe nahiago dute ez inbertitu. Ba daude, beste batzuek, industriako agintariak batez ere, nahitaez diru hori behar dutenak baldin eta beren industria, gizarte modua eta azken batetan, sistema ekonomikoa bera salbatu nahi badute. Bi multzo hauen artean, burroka dago gaur egun, norik estatua zuzenduko borrokatzen baitute. Ba dirudi, azken hauek inperialismoaren laguntza, diru laguntza, izango dutela, eta horretara datoz oraintsu eman berri diren hainbat banku amerikano eta europeoztat, baimenak. Azpimarkatu behar da, ordea, datozen banku guztietatik, bat bera ere ez dela Euskal Herrian afinkatuko (guk dakigularik), eta baita ere esan behar da banku hauen diruak non inbertitzen diren ikusteko dagoela, zeren lehenagoko inbertsioen bidea jarraitzen badute ez dute lanpostu handirik sortuko.

Izan ere, hau da krisiaren beste sintoma bat: langabezia. Sistema kapitalistak beti behar ditu langabeak, langilea hobeto maneiatzeko. Langabeak egonik gogorrago da soldataren edo edozein langile erreibindikapenaren aldeko burruka, ka-

pitalistak batzuek eta beste batzuek hartu lasaiki egin ahal duelako. Baina, gaurregun, langabeen kopurua jadanik sistema bera beldurtzeko adinekoa da. Hain zuzen ere, krisitik irteko proposatzen den bidea industria zaharrei berbihurtze bat dakar, eta honek plantilen gutxitze bat eskatzen du, kapitalistak ez baitu pezetak bat ere galdu nahi, kapitalismoaren logika hauxe baita, irabazpidea nola hala lortu, behean zapaldurik gelditzen denari begiratu gabe. Kontutan hartzekoa da ere langabeetatik gero eta portzentaia handiago bat ikasle ohiak direla, eta hauek erantzun politiko gogorragoa ematen dute.

Hirugarren bereizgarri bat inflazioa da. Hau da, prezioen goratze etengabea. Hemen ere kapitalismoaren logika dakusagu: irabazpidea ateratzeko ez du axolari prezioak ilargiraino igoteak ere. Edo bestela, lantegia itxi langileak kalean esku hutsik geratzen direlarik.

Krisiaren efektuak gehiago izan arren. Hauk ditugu garrantzitsuenak. Gobernuak, noski, borrokatuko ditu. Hor ditugu, Moncloako Itunak, zeinek inflazioa gutxitzea behintzat lortu zuten, milaka langile kalean uztearen truke. Baina langabezia ez dirudi epe motzera bukatuko denik, zeren eta Gobernuak adierazitako produkzio indizeak inork gutxi sinesten du beteko direnik. Bestealde boterearen lortzeko burruka, bankudun eta industrialen artean hor dago, honek linea ekonomiko-politiko firme bat eramatea eragozten dielarik.

SOLUZIOAK GURE ESKU

Lagunok, inork ez dezala pentsa egoera honetan egotea desiatzen dudunik. Goian aipatu guztia Euskal Herrian zorrotz egiten da, goi kapitalistak beldur baitira, gure burruka beldur. LAN KIDE AURREZKI kutxak zionez, eta martxa hau jarraituz gero, 10 urte barru herri hau, emigrateen herri bat izan daiteke. Honen aurrean, zer?

Nik ez dut uste soluzioak, gauzak betikoen eskuetan uztean dagoenik. Guzti hau ez da kasualitate bat, bizi dugun sistemaren logika baizik, non irabazpidera makurtu behar ditugu: jutzia, askatasuna, berdintasun goak.

Horregatik soluzio berrien bila abiatu beharra dago. Eta horretarako sistema berri bat behar dugu, non denon ardurapean, denon kontrolpean eta denon agindupean injuztiak, asakatasunik eza eta desberintasuna apurtzen saiatuko gara. Joan gaitezen bide horretan.

MENDIZABAL

JAKIN

EUSKAL KULTUR ALDIZKARIA

Hiruhilabeteko JAKINek eskaintzen du:

Monografiak
Azterketak
gaurko gaiak

Oraingo zenbakiaren gai nagusia:

FILOSOFO BERRIAK

Kolaboratzen dute;
Andonegi, Xabier; Azurmendi, Joxe;
Etxezarreta, Erramun; Knorr, Endrixe;
Muxika, Luis Mari; Pagola, Manolo; Sodupe, Jon; Torrealdai, Juan Mari; Zalbide, Mikel; etc.

800 pzta urtean. 250 alea.
Eskabideak eta harpidetza:
Gral. Mola, 23; 1. DONOSTIA
Tel: (943) 27 17 13

KANBODIA ETA EKIALDE URRUNA: KOMUNISTEN ARTEKO BURRUKA LEKUA OTE?



Khmer gorri preso talde bat

Hainbat urtetan zehar, mundu osoko begiak Ekialde urrunera begira egon ondoren, lasai eta pozik geratu ginen hainbeste jende. Vietnam-eko gerla bukatu zenean, azkenez hain zorigabeko izan den herri hori bere buruaren jabe bihurtu zen eta.

Lehen hileetan ez zen hango egoeraz gehiegi jakiten, gerlen osteko gertaerak nahiko nahasiak izan ohi dira eta. Hala ere, handik hurbil ze goen herri baten berri ilunak ba genituen: Kanbodiakoak, edo beraiek diotenez, Kanpucheakeak, halegia. Han Pol Pot eta khmer gorrien gobernu zapaltzaileak boterea baitzuen; bai, bai, zapaltzaile eta hiltzaile, zeren nahiz eta pro-txinak izan, Txinaren laguntza eduki, eta beraien burua komunistatzat eduki, milioka konta baitaitezke beharbada gobernu honen pean hil diren pertsonak.

Gauzak honela zuedela, apurka

apurka, eta prentsaren bidez. Vietnam-en gauza arraroak gertatzen ari zirela hasi zen esaten: zapalkuntza handia zela, gartzela zelaiak ugariak, kontrole ideologiko gogorra, sozialismoranzko bide argirik ez, etab.

Eztabaida luzeak egon ondoren, bat batean, herrialde haien egoera oraindik gehiago nahasiko zuen beste zerbait jazo zen: Vietnam Kanbodia indabitzen ari zen! Posible ote?

Horrelakorik ez zen munduan eza-guna izan: komunista autodeituriko herri batek antzeko bati gerra egiten zion; komunistak komunisten kontra, eta hori dena, komunismoaren izenean. Eskandalua handia izan zen, beste gauza askoren artean, han gertatzen zena sobietar eta txinatarren arteko burrukaren beste etapa baino ez baitzen, bi potentziok beren oinak alde horretan ondo finkatu nahi dituzte eta.

Vietnamdarrak laster heldu ziren Phom Penh-era, hots, Kanbodiako hiriburura, eta gobernu, ia izen bat soilik den FUNSK-en eskuetan geratu zen. Hala ere, Khmer gorriak, alde egin ondoren burukatzen, hasi dira, eta gerrilak muntaturik daude jadinik. Eta kanpucheatarrak? Beraik beti zapaldurik, bai khmer gorrien azpian eta bai Vietnamdarrarenean are, beraik beti galtzaile direlarik.

Inbasioa gertatu ondoren, estatu askotako erreakzioak laster ezagutu ahal izan genituen; sobietarrak eta beraien inguruan dabilzan ia herri guztiak alde, noski; txinoak, errumanoak, ipar-koreatarrak eta zenbait herri ez alienatu aurka.

Eta berriz, interes politiko estratagiko eta ekonomikoak itxura guztietako estatuen ekintzen oinarrian daudela frogatu da, giza errespetua beti bazterrean gelditen delarik.

M. J. ESTEBAN



EGYPTO GREZIA ETA ISRAEL

Lankide
Aurrezki kutxarekin

Lankide aurrezkiak 160 aurreztaile gonbidatzen ditu, Mediterraneoan zehar bidaiaria egitera, Egipto, Grezia eta Israel bisitatuz.

GURE edozein BULEGOTAN, 1979ko Urtarrilaren 2tik aurrera, aurrezki eragiketarako egiten dituzten guztiak parte har dezakete zozketan.

1.000 pezetako ezarpen bakoitzeko, zozketa txartel bat hartzeko eskubidea daukazu, eta, gainera, lehen ezarpen hori egiterakoan, zenezkakeen 10.000 pezetako saldo bakoitzeko beste txartel bana hartzeko eskubidea duzu.

Bidaiaria honetarako ateratako txartel bakoitzak pertsona birentzat balio izanen du.



1979: Lankide Aurrezkiaren itsas bidaiaren urtea.

EMAKUMEEKIN MINTZO: MARIBEL BELASTEGI



Euskadiko kultur mugimenduan emakumeen presentzia aurkitzeko, nahi eta nahiez itxura guztien azpian bilatu behar da. Gain begirada batetan, gizonzkoen pertsonalarekin beti aurkituko gara eta emakume pertsonalaz ahaztuko; buila gabe, firma gabe, eta argazkirik gabe, anonimatarik handienez, hainbeste urtez lanean aritu izan direnak.

Emakume gehienak mugitzen diren anonimato hau, gehiegizko, harrigarri eta neurri gabea da emakume euskaldunei gagozkiozlarik. Egunen batean, jakingo da isiltasun hau, super diskrezio hau, gogozko eta desiratua izan den ala bizi diren marginatuen egoeraren ondorioa den. Ea berak isiltzen diren ala ahoa tapatzen zaion.

Dena dela, gaur horietako batekin hitzegiteko aukera dugu. 18 urte antzerkiari, teatroari, entregatua daraman emakume batekin hain zuzen. Antzerki independenteari entregatua. Komertzial bideei, diruari eta arrakasta errazei jaramonik egiten ez dion antzerki moeta. Era batera edo bestera 18 urtez Donostia den bezelako hiri ttipi batean antzeki lanei lotua. Batzuk ORAIN taldearen furgonetaren txofer bezala ezagutuko dute, trastez eta jendez bete. Besteak, beharbada, hauzko batetako errepresentazioaren batean fokoak maneiatzen gogoratuko dute. Edo guztiz sinpleki ez dute ezagutuko, zeren eskenografia eta direktzio lana, bere lana, garrantzitsua bezain izkutua da. Berari esker, azken urte hauetako Donostiako antzerki mugimenduaren parte bati berbegirada bat eman ahal izanen diogu. Zer eboluzio izan duen, ikuspegi zenbait, eta bai bere kontraesanak ere.

—A.: Zergatik antzerkia?

—M. B.: Esan daiteke antzerki zaletasuna ttipitandik daramadala. Nire aitona, Orfeon Donostiarreko kontserjea zen eta garai hartan antzerki talde bat bertan entsaiotzen zen. Konprenituko duzu... nire eginkizunak utzi eta taldea nola entsaiatzen zen begira egon ohi nintzen. Gogoratzen naiz, nola eskena batean, eskaileretatik, bat nola erortzen zen. Bueno ba, ikusten nuen bakoitzean, nahiz jakin guzti hura fikzioa zela, gogorki bizi ohi nuen, aurpegia nere bi eskuez estali ohi nuen... Errealitatearekiko txoke bat zen.

—A.: Antzeslari edo horrelako zerbait izateko ametsik ez al duzu izan?

—M. B.: Ez, ezta pentsatu ere. Antzerkia niretzat ingurune bat zen eta bertan naturalki sartua sentitzen nintzen. Nire lagunekin portaletan antzerkiak egin ohi genituen hauzoko neskato-mutikoentzat. Hamar zentimo kobratzen genuen, baina esate baterako, inoiz ez nuen parte hartu kolegioko antzerkietan. Inoiz ez zait burutik pasa antzeslari izatea... Pretentsiorik ez nuen bat ere... Etxebizitzaz aldatzean... entseiu eta antzerki mundu harekiko kontaktuak

elkar
ikuskika

galdu nituen eta 17-18 urte bitarte ez nuen inolako harremanik izatea lortu.

—A.: "Ondina" taldearekin topo egin zenuen arte, ez da?

—M. B.: Bai. Jaime Azpilikueta-rekin, hau Ateneo antzes-taldean zegoen, eta elkarrekin Iruresoro hauzoan "Ondina" taldea sortu genuen. Errepresentatu genituen obrak hauk izan ziren... "Farsas" Muñiz-ena, "las brujas de Salem" etab... Garai haietan balentria dexentea zen.

—A.: Zuk, guzti horretan, zertan hartzen zenuen parte?

—M. B.: Batzutan, obrak erre-presentatzen nituen, baina oso azkar skenografi bidea hartu eta urte askoz horretan aritu izan naiz. Antzestea baino, lan zabalagoa zen, hau da talde lana, bapitipat. Lehendabizitik garrantzi handirik ez genion ematen. Obrari ambientazioa ematea besterik ez gehuen egiten. Ioneskoren "la Cantante calva"-ren munkaketaz geroztik, eskenografia askoz ere sortzailleagoa bihurtu zen niretzat. Eskenatikian egin zitezkeen gauzak, aurkitu behar ziren. Oso ausartak ginen. Guztiarekin ausartzen ginen... Pentsa ezazu, geroago T. E. U.-n parte hartzera separastuginenean, Macbeth egin genuen,

soldadu guztiak adar bihurturik eskenarioan mugitzen... imaginatzen duzu? Oso pretentslotsuak ginen... baina, zer nahi duzu... oso onartuak ginen, txapelketa guztietara joaten ginen... sariak irabazten genituen...

—A.: Zeintzu obra antzesten zenituzten garai hartan?

—M. B.: Ba... "La camisa" Lauro Olmorena... Ba dakizu 60ko antzerki soziala, zer tipotakoa zen... Bellido-ren "Futbol" obrarekin Parisera joan ginen. Antzes leku eta unibertsitateetan egin genuen, imagina ezazu, holako oza!

—A.: Modu goxo eta egoki batez hitzegiten duzu garai hartaz...

M. B.: Noski! Ahal zen antzerkia egiten zen orduan. Garai hartako kriterioz noki. Politika arazoak ez ziren gehlegi bizi, ixiltasunaren denbora zen. Guztia, jende multzo batera mugartzen zen, adiskideak, giro on bat, eta gogo izugarriak lane-rako.

—A.: Profesionaltasunik ez al zenuten planteiatzen?

—M. B.: Generalki ez. Garai hartan ez genuen planteiatzen. Dirurik ez genuen irabazten. 100.000 pezetatako sari bat salbu. Sari hau TV-an irabazi genuen. Dena diru gutxiarekin egiten genuen, imaginazio asko eta askorekin...

—A.: T. E. U.-n, noiz arte?

—M. B.: Ba, desegin zen arte. J. Azpilikuetak alde egin zuen. T. E. U.k geroztik urte bete inguru iraun zuen eta gero zeharo izkutatatu, desegin zen. Ni, "Tabladora", lanera, pasa nintzen. Ate-neoko antzerki taldea zen. Bilbora joan ginen "El deporte de mi loca madre" obrarekin eta han, AKELARRE taldearekin eta Luis Mari Iturriekin lehen harremanak izan genituen. Arrakasta denxente izan genuen.

Bueno, gero "Tabladotik" beste bi lagunekin irten eta ORAIN taldea osatu genuen. 1968 ean...

—A.: Zeintzu ziren zuen planteiaketak ORAIN osatzean?

—M. B.: Inolako intituzioren dependentsiarik ez izatea zen gure gogoa. Inolako loturarik gabeko talde bat osatzea. Antzerki planteiaketa berri eta jatorragoen egarriz sortu zen talde hau. Antzerki literario eta aldaketa gutxi zuen antzerkiak, garai horretara artean egindakoak, ez ziren balio. Antzerki herrikoiko edo popularra nahi genuen. Betiko elitearentzat ez. Edonora eraman zitekeen antzerkia baizik.

—A.: Eskenografiaren kontzeptzio

berriak eskatuko zizkizun horrek ezta?

—M. B.: Jakina. Mementu honetararte artez antzez barrutiak aldagaitzak ziren. Guzti horrekin hautsi behar zen. Ikastaro bat egin genuen eta anitz posibilitate iriki zitzaigun: sorketa kolektiboa, Stanislawski, aktoreen estimulazio e. a. Jakina, eskenografiak ere desberdina izan behar zuen. Erraza, praktikoa, mugieraza, lan kreatzailearen estimulo eta erresultatua...

—A.: Garai hartakoa al da egin zenuten "Las farsas contemporaneas"?

—M. B.: Bueno... Ballesteros-en obra horrekin gure ametsak betetzen hasi ziren. Bi urtez aritu ginen obra horrekin. Hirurogei errepresentaziotik gora pasatu ginen Gipuzkoan, Bizkaian eta Donostiako hauzoetan. Sarrerarik ez zen kobratu ohi. Baina espektadore bakoitzari sobre bat eman ohi zitzaion antzerkiak galdekizun bat zuelarik eta esan ohi zitzaion, ahal zutenek ekonomi laguntza eman, sar zezatela sobre hartan bertan. Jendeak zoragarri erantzuten zuen. Oso garai ona izan zen. Antzerki taldeak ere ekarri ohi genituen. Boadella (Els Joglars) ekarri genuen eta berarekin ikastaldi bat egin genuen. Oso garai zoragarria izan zen.

Denbora berean, haurrentzako antzerkitxoak egiten genituen eta horrek taldeari bizia ematen zion eta... ba dakizu, furgonetako letrak eta...

—A.: Azken boladan, haurrentzako, urtean antzerki bat prestatzen zenuten. Nola ulertzen duzue haurren antzerkia? Sail xumeago agian?

—M. B.: Ez, xumeagoa ez. Guk ez dugu modu didaktikoan enfokatu, ez da landugabeko lana izan... Nik esanen luke, guk antzerki moeta honekin, nahi izan duguna haurrak ongi pasatzea, libertitzea, izan dela.

—A.: Haurren obra bi hizkuntzetan ematen zenituzten edo euskaraz bestela eta aldiz beste espektakuloak...?

—M. B.: Ba besteak, beti gaztelaz izan dira. Taldearen beraren limitazioengatik. Taldeak ba dira batzu euskaldunak direnak, baina nik onartzen dut, zoritxarrez, gure sustriak ez direla euskaldunak. Begira... onartzen dut, zoritxarrez, gure sustriak ez direla euskaldunak. Begira... pixka bat, eman zaigun kulturaren biktimak gara... Guk egiten genuena, idatzirik zeuden obrei buruz lan egiten genuen eta euskaraz ez zegoen guri intere-

satzen zitzaigun tankerako obra idatzirik.

—A.: Pentsatzen dut, gertakizun politikoek zer ikusia izanen dutela zure eta taldearen eboluzioan?

—M. B.: Bai asko. Bost urte hauetan, gauza askoz kontzientziatu gara. Beharbada beranduegi, zoritxarrez, eta egun ere ezin gintezk engaina. Esan nahi dut, antzerki guztiz euskaldun bat egiteko ditugun limitazio handiengatik, gutxienez espektakuloaren zintzotasunz egin dardila nahi dugu. Laneko erarik jatorrena deritzot. Oportunismorik gabe. Beste aldetik, espektakuloetan hitzak, hitzegitea asko gutxitu dugu. Euskara ikasten dugu... Klaseak, niretzat, behar beharrezkoak dira. Ez dakit inoiz euskaraz expresatu ahal izan dudana, baina behar handia sentitzen dut niregan, era batera edo bestera sensibilitate euskaldunera hurbiltzeko, euskal kulturara hurbiltzeko.

—A.: Zu zeu konprometitzeko era bat?

—M. B.: Bai, hori da.

—A.: Zer da C. G. V.ek proposatzen zuen Euskadiko antzerki kanpainaz edo...?

—M. B.: Bueno, asuntu horretaz, gure iritzia, besterik ez, dizut emanen. Lehengo udaberrian, C. G. V.ko kultur komiteak proposamendu bat egin zien talde guztiei antzerki kanpaina zela eta. Bilkura asko egin ondoren talde euskaldunak eta guk, Orain taldeak, projektu hori bazterrera utzi genuen.

—A.: Zer ba?

—M. B.: Arrazoi askorengatik. Baina hitz gutxitan esateko... Ez zegoen denborarik antzerki berriak egiteko. Talde guztiek lehen egindako obrak erreprezentatzera behartuak ziren. Eta ez kasu gutxitan, zaharkitutako obrak izanzen ziren. Eta egungo antzerki euskalduraren agerpen modura festibal hori egitea faltsu iduritzen zitzaigun. Gainera, hemen antzerkia indartzea nahi badugu, egokiago iduritzen zitzaigun oinarriak botatzen hastea. Antzerki eskola bat antolatzea adibidez. Beraz, da.. delako festibal hori, hemendik 10 bat urteren barrura edo... posibletzat ematen zen. Ulertzen duzu... Orain, kasu hauetan beti ohi den bezala "Madriletik bidaliko duten dirua", nola programak betetzea gehiago komeni den Euskadiko antzerki oinarri tinakoak ezartzea baino... ba, bueno, gu joko horretan ez gara sartzen.

MARIASUN LANJA

ALAN STIVELL-EK EUSKAL HERRIAN KANTATUKO DU

Euskal Herrian egiteko zen kantaldia atzeraturik, beharrezkoa zen Madrilerera joatea. Bestalde, Londres, Paris edo Copenhaguera jotzea Stivell-en ohizko lantokiak, gaizkiago zetorkigun; beti interesatu zaigu oraingo musiko nazionalista honen karisma ezagutzea, keltar musikarako bide berrien bila-tzailea, musika honi biziki kolore exotikoak eransten dizkioten tresna berriak erabiliz.



BIOGRAFI OHAR TTIPIAK

Beste anitz bretoiren moduan, Alan Stivell Parisen sortua da (1944) eta Bretainian hazitakoa. Kelten zibilizazio musikalaren oparotasunak, kantu gregoriarra bere garbitasun osoan mantendu izan den hainbat monastegirekin, bideratu egin zuten Alan-en prestakuntza musikala, bost urte bi diskoak grabatu zituen bere benetazko izanak: Alan Cochevelou. Handik urtebetera, eskoziar gaitaz hasten da lanean. 66.ean bretoi musikorik hoberenaren titutu bi erdietsi zituen. Urte hartan bertan kantatuko du lehenengoz Parisen. 70.eko Uztailean haren lehen singlea "Broceliande" agertzen da; urte erdi beranduago, lehen LPa: "Reflets". 71.ko Maiatzaean, Irlanako Killarney jaialdean, lehen saria irabazten du. Bigarren LPa "Renasissance de la harpe celtique" agertzen da. 72.eko Otsailean Pariseko Olimpia betezen du, eta hango kontzertuetatik, zuzenki grabaturiko lehen LPa agertuko da lau hilabete ge-

roago. 73.ean "Chimins de terre" ateratzen du eta hurrengo urtean "E langoned" Europako rock giroetan, musikorik interesgarrienetariko bat bezala kontsideratzen da, aldi berean, izaera politikodun apala daukaten emanalditan saiatzen da. Gerago haren "Live in Dublin" LPa irteten da. Bestelako lanak ateratzen ditu, "Un de-wezh'barzh'ger" "agertu, arte, bere azken lana, gai izpiritualek, hinduek batipat influentziaturik.

ELKARRIZKETAN

Alan Stivell ondo portatzen da kazetariekin, zabalik agertzen da, ez du kreatibitate eta famaren gailurreraino iritsiriko kantariei hospeak eman diezaikeen ohorea onartu nahi. Kontrako jarrera politikoa bat berau, alienaturik eta lurrezko idolo bat izatea nahi lukeen publikoaren aurrean; horregatik humanismoaz ari denean, bere eritziak ezin argiagoak dira.

"Jendeaz egiten dudana balorapena, ere musikak daraman marko politikoa-

ren barnean sartu behar dut. Ene Zintzasun musikaletik abiatzen naiz. Ene bretoindar sustraietatik ari naiz lanean. Eta hori egiten dut, argitu nauten jatorriei diedan leialtasunagatik eta ene popularen kulturarekiko konpromezurengatik. Hau argi dago ene herrian. Nik uste, funtsezko da artista eginkizun kreative bati entregatzea, bere inguruan duen hurbilenaren zerbitzutan: bere jendea. Horixe da, niretzat, giza portaerarik jatorrena".

—Ideologi aldetik, non zaude?

"Zentzu partidista zabal batean, bretoi herriaren askatasun nazional eta sozialaren kausari loturik natzai. Espektru handiago batean, ez naizela marxista osoa esango dizut, ez bainago materialak, herrien askapen eta aurre-ramendurako ukan dezakeen garrantziaz sinetsirik. Ene pensamenduak kontzeptzio marxista nabariak izan, batzutan hau gizona eta gauzen naturaren kontra doa. Definizioz hurbilena emateke, marxista izpiritualea naizela esango nizuke, anarkismarekin

eragin zati batekin. Gehiago erranen dizut, ez naiz biolentoa. Ez dut esan nahi, prakak jeitsi eta pasiboki egon beharra dagoenik, ez, zenbait kasutan argiro dakusat beste biderik ez dagoela, justifikaturik dagoela, nahiz justua izan ez”.

—Lehen begiradan, bederen, ba dirudi espainol Estatuko burruka autonomistak, frantses Estatukoak baino aurreratuagoak daudela. Nola da posible berau?

”Alderdi majoritarioak frenatzen ari dira Bretaniaren bide autonomista. Ba dakigu, frantses herriak, autonomia bat eskatzen duela Britainiaarentzat, baina paradoxikoki, bi alderdi handi PCE eta UDR (Chirac-en errepublikazaleak) erabat kontra daude”.

—Nola kontretatzen da, orduan, parlamental burruaka?

”Bretoiindar Alderdi Nazionalistak (UDB) ba du zenbait toki frantses parlamentuan, horrek Britainiaren erreibindikazio autonomikoez oinarritzko programa bat egin zuen. Hala ere, burruka hori lehen fasean asimilatua izan bada ere, gero ezker parlamentarista eta eskuin tradizionala bat egin dira eta ito egin dute bigarren fasea. Dena den, azterketa historikoen ikuspegitik, ikusi behar da nola duela anitz urte, nazionalismo bretoiaren barnean, eskuinekoak eta ezkerrekoak izan direla. Bigarren mundu gerraren ondotik, ordea, mugimendu eta alderdi nazionalistak, ezkerrekoak baizik ez dira. Gai politiko honetaz amaitzeko, esan behar dut, ongi ikusten dudala gazteen eginahalak alderdi politikoen sartzeko edo burruka sindikalean afiliatzeko, burrukazko adierazpide politikoak baitira.

—Musika alderditik begiraturik, nolako desberdinketa eginen zenuke musika tradizionala eta aporiaketa etnikoak deiturikoen artean?

”Argi dago, musika tradizionala zenbait mendetan zehar, ahozko transmisioari ezker desarroitatu dela. Garai preindustrial baten agerpena da. Beharaldia, eklosio industrialaren garaian hasten da, mende honetan ezagutu ditugun gerrekin desagertzeko. Bestalde, musika etnikoa herrien kultura propioa da. Beren sustriak, funtsean eta beti. Zeuk ulertzeko esango dizut, harpa, gaita eta bonbarda existitu orduko, keltiar musika ba zegoela, eta musika tresna hauk desagertzen diren egunean ere izango da. Keltiar musika, musika etniko guztiak legez, mantendu eginen da, herriaren kultura eta ohiturekin dituen loturengatik. Musika tradizionala, superfiziala da etnikoaren aldean”.

Nolako musika entzun ohi zenuen tikitan eta gaztetan?

”Bederatzi urte nituelarik, musika keltiarra baizik ez entzutera behartu

ninduen krisialdi bat pairatu nuen... Ene nekazari bizitzak eta oraingo landetxeak areagotu egin dute ene musikaren izaera artisanal eta bukoliko hori”.

Nola explikatzen duzu, bada, zeure musikan kultura industrializatuen elementuak agertzea, rocka kasu?

”Hori, oraingo rock kulturaren chauvinismoa gaitzetsiz, konpondu dudana kontraesan bat da. Rockaren kolonialismoak ba ditu nik erabili ez eta gaitzesten ditudan elementu ezaugarriak. Hala ere, hartu egin dut musika modu horren zenbait influentzia, hindu izaera duten beste batzu legez, eta keltiar musikaren lagungarri erabiltzen ditut. Ene ustez, horrela konpondu egin dut kontraesana, musika keltiarraren kanpoan interesgarrikerik dagoena asimilatuz, bretoiindar musika aberats, propio eta herrikoi bat iristeko.

Hala ere, helburu ori argi izan arren, ezin daiteke, nire ustetan, inolako musikarik arbuia, komunitate bat arbuizatzea bailitzateke erau”.



Euskal Herrira etortzekoa zarela entzuten da...

”Prest nago maite dudana herri horretara joateko, eta bide batez, Asturias eta Galiziaraino, oraindik keltiar sustriak gehien gordetzen dituzten herriak izanik ailegatu nahi nuke. EGIN egunkariak egin dit proposamendu bat, eta onartzeko prest nago. Ez nuke eginen, Europako kantaldietako ohizko moduz. Ahalik eta guttinen kobratuko nuke, baina honen ordez, kontzertuaren antolakera profesionala exijituz, zeren ba ditut horretaz esperientzia tristeak Frantzian, intentzio politiko edo kulturalaz antolatutako jaialdietara joan eta gero desengainaturik geratu naiz. Profesionaltasuna falta, beharrezko kondiziorik betetzen duen lokalerik ez, ekipo egokirik ez, etab.

KONTZERTUA

Kontzertua, Espainiako Irrati

Nazionaleko kritikari musikalen ekipoaren ideia baten mamitzea izan da. Alcalá Palace teatrotik, Kate estatal horren irrati guztientzako transmisio zuzenean, hilerok eginen diren kontzertuetariko lehena izan dugu.

Alan Stivell-ek 900.000 pza jaso zituen, Europan zehar kantatzeagatik kobratzen duena baino gehiago berau, baina Irrati Estatalak eskaini ziona. Halabaina antolatzaileek kantaldiaz xahaturiko dirua 1.200.000 pza izan da gastu guztiak betetzeko, zergak, antolaketa, teatroaren alokairua, etab. Herri Kantagintzak ez du sekula izan beren zerbitzutan Estatuarengandiko horrenbeste mediorik. Ideia hau mantendu egiten da oraino eta bestelako musika tankerei ere zabalduko zaie, hala nola rock, jazz, sinfonismoa, etab. Mundukorik handienak ekartzeko asmoa dago. Eta Estatuaren aparatuasunaren adierazpide, esan beharra da, sarrera txartelak dohainikoak zirela.

Stivell-en kontzertuen ohizko parte biak ezberdinak izan ziren; lehendabizikoan, Stivell bakarrik agertu zen publikoaren aurrera bere tresnekin, harpa, bonbarda eta gaita nagusiki, eta bigarrenean, sei elementudun talde batek, musikoak tradizio keltei rockaren eduki propioa batuz desarroitzen ari dena agertu zigun.


Parte bidun kontzertu bat, Alanen historia bera bezala: batetik, herri tipi zapaldu baten historiaren gertaera klabeen jarrera adierazlea, gertaera horik jazo ziren moduan agertuz. Bestalde, beste partea, egunerokotasunean konkretatzen den historia. Kantu delikatu batez bere semaren jaiotzea agurtzen du. Yann Kel, Bretoi burrukaren martiriarentzako kantua hunkigarri batez urratu egiten gaitu. Keltiar kultura bereziaren superbizitzerako, eguneroko burruka konkretua erreinbindikatzen du. Erepresio politiko modernoan salatzen du edo, konturatu gabe, lan musikal elaboratuak bilakatzeko diren soinu arkaikoak errekuiperatzen ditu.

Britainia behekoa eta garaia, Irlanda, Galizia, hitz guttitan gaztelaniaz musikoak etengabeki egiten dituen aipamenak dira. Madrilen lehen aldiz gustora aurkitzen garela sentitzen dugu, Iparreko lurretatik berao erraieratik sentitzen dugu lehenengoz.

Kontzertua, herri baten pozak eta burrukaz osaturiko eguneroko bizitza eta historia izan zen. Aspektu hau argi agertzen da, jendea parte hartzera bultzatu zuten dantzetan. Herri musikak soilik eskaini ditzakeen dardara, garbitasun eta berao jendeak sentitu zuen jaialdi bat.

KARLOS ARKO

MASAK ALA ELITEAK? (IV)



Langile klaseak bere burua eratzten du, bere alderdi propioak, langile alderdiak, klase alderdiak, sindikatuak, etab. sortzen ditu. Une honetan masek beraien papera jokatzeko dute historian, alderdi politiko eta sindikatuetan eraturik. Burruka iraultzailearen abangoardia gisan zerbitzatuko duten alderdiak berak, munduan sozialismoaren finkapen osoa eta gizarte klasista ororen desagerpena lortu arte. Baina oso guti izango dira abangoardia iraultzaile bilakatuko direnak, zeren eta beraietariko gehiengoa, eta batez ere bere burrukari iraultzaile izen damaiotenak burukaziaren eskuetan jausi dira eta jarraituko dira, politika burjesaren lerroak sendotzearen truk bide iraultzailea utzirik, nahiz kontziente nahiz inkontzienteki. Langile mugimenduan burukaziaren arazoa, bere aurpegiak berehalakoenean, langile erakundeen aparatuen arazo gisan azaltzen da; langile erakundee-tan, erdi —edo goi— mailako zuzendaritza funtzioak betetzen dituzten iraukorren, intelektual burjes-tipien arazoa. Langile mugimenduaren bilakaerak aparatu baten sorrera ezinbestekoa dela adierazten du, hala nola funtzionarien agerpena, zeintzu edozein espezialpeni esker langile klasearen barnean proletal kondizioak sorturiko atzerapena gainditzeko saiatzeko baitira. Ez dago zalantzarik ere, sozial igoera fenomeno honek, potentzian, burukaziaren ernamun garrantzitsu bat duenik: Postu hau dituztenek, berak edukitzen jarraitu nahi dute, eta honek, erakundeen kideen artean aldizkatuz ordezkatu nahi lituzketenen aurka egoera iraukor honen defentsara daramatza. Langile demokratiaren bidez Estatuaren administrazioan langileen parteharitze zuzenaren

bitartez, hala nola langileen autogestioaren aurrerapenarekin eta ekonomi alorrean langile klasearen zenbatasunezko eta nolakotasunezko indartzearekin izango baita, nola langile mugimenduak bere baitatik burukazitazapen posibilitate oro desagertezaziko duen. Eta nazioarteko alorrean, iraultzaren hedapenak lagunduko du, proletal iraultzaren isolamendua apurtzeko eta, beraz, burukazitazapen prozesuaren aurka erarik eraginkorrenean burukatzeko.

MASEN PROTAGONISMOA

Bihur gaitzen masek historian zehar jokatzeko duten paperera, eta ikusiko dugu nola, era batez edo bestez, herria den denboraz guztietako historiaren, bere historiaren, sortzaile. Pentsalari burjesen aldetik makina bat aldrebeskuntza jasanik ere, oraindik langile masen gogoan bizirik dirauen historia. Protagonista printzipal gisan eta batez ere egile eta sortzaile gisan, masak dituen historia. Baina beraien paper eginkorra ez da beti berdina izan, hala nola berak ez diren berdina munduaren bilakaeraren etapa ezberdinetan zehar eta berdinak ez diren beraien esperientzia, ezaguera, eraketa,... eta beraz, beraien ekintza. Guzti hau historiaren bilakaeraren ingurumenak eta klase burruka luze eta etengabe honetan klase lehiakide bien posizioak eragina. Horrela ba, herriaren paper historikoa, gizateriaren aurrerapenaren arauera handituz doala ondorioztatu dezakegu. Honek, lehen aipatu dudanez, sozial aldaketaren sakontzeari obeditzen dio. Gizartearen bilakaeraren eragina guztiz funtsezkoa da klase burrukaren bilakaeran. Gizarte batek aurrera eramane beha-

rrezko misioa zenbat eta konplexuago izan, hainbat eta zabalago dira beraien burutzera jartzen diren masak.

Historikoki sozial aurrerapena langile klasearen emantzipazio aurreragarriarekin burutzen da. Aske jatorrian eta esklabu geroztik, gauza kondiziora mugatuak plusbalioa ateratzen hasi zenetik; zamabereak baino gutiago kontsideratuak, geroxeago jopu bihurtuz, aintzinako esklabutzairen aldapen eta aurrerapen ohargarria berak, zeren eta jadanik jopu edo morroia, zabilki bederen, gizon legez preziatua da, familia bat sortu eta bere ondasunen libreaki disposatzeko ahalmenarekin, nahiz eta esklabutik, nagusiarekin menpetasuna, nagusia personalki eta ordainik gabe zerbitzatzeko obligazioa eta nagusiaren baimenik gabe berak esaniko bizilekutik aldendu ezina eramane; honez gainera, jaunaren zerga eta justiziari meneratua egonik, baldintza guzti hauek, bizitoki legez duen lurraren jabeari desarmaturik libratzen dute, horrela gizarte esklabutzairen abolipenarekin lorturiko abantailarik gehienak lilurazko eta ametsetako bihurturik. Proletal feudalismoa suntsitu edo eta itzali zuten monarkia handien sorreratik eta beraien konstituzionalizentik: zuzenbidez, aske, adinez nagusi, legearen beraien aintzinako nagusien berdintsu baina praktikan, gosez ez hiltzeko goizero nagusi bat bilatzera bultzatzen dituen gabeziak jopu eta esklabu. Maskaraturiko esklabutza hau hainbat gorrotagarriago eta hastangarriago da, zenbat eta gehiago izan legeetan klase hauen alde egoniko eskubide pila; gabeziaren esklabu, kapital deituriko jaun feudal baten esklabu, produkzio eta aberastasunaren elementu aktibo izateari uzten dionean, aintzinako nagusiek beraien

beraien esklabu hori mantendu eta defendatzeko zuten obligazioa bederen ere ez duen jaun baten esklabu.

Esklabu praktikan, nahiz eta aske legez, langile klaseak hasiak dira jadanik ulertzen beraien politikazko emantzipazio amets huts bat dela kapitalaren uztarpetik ekonomikoki ere emantzipatzen ez badira, horrela lantresnen lorpenaren bitartez beraien askatasun ekonomikoa lortuz. Beraz, degradapen material eta moral hauen eta irabazi duten politikazko gorapenaren arteko elkartzintasuna ulerturik, langileak, erresistenzi elkargoa sortuz, beraien emantzipazio ekonomikoa egiten ari dira, kapitala esplotatzailetik esplotatu bihurtuko duena, horrela lanaren eta langilearen tresna izatearen bere benetako paperera mugatuz.

GIZARTE ESPLITATZAILEAREN HISTORIA

Klase burrukak presiditzen du esplotakuntzan oinarrituriko gizarte ororen historia. Klase zapalduak bizitza politikoan egiten duten burrukak aurrerapen eragin izugarri bat agertzen du. Pixkanaka, proletalgoaren eta langile errebindikapekin adosago dagoen politikazko gobernamoldea sortuz doa. Langile klaseen burruka izan ezik, egungo Herrialde kapitalisten bizitza politikoa guztiz ezberdina litzateke. Langile klaseek era guztiz ezberdinetan azaltzen dute beraien eragina historian zehar, baina, nola egiten dute kapitalismoan? Jakina da, azken batean, masak direla politikaren gai zentral eta erdigunea. Beraien eragina politikazko bizitzan, garrantzitsua ez ezik, dezisiboa da. Masek osatzen dute historiaren eta beraz, bizitza politikoren indar higierazlea.

Kapitalista garaian, beste garai batzutan bezala, langile masak dira, esplotaturik daudelako hain zuzen, beraien esku dauden medio guztiez sistema botatzen saiatzen direnak. Masak dira azken mende honetako iraultzen egile. Masak dira, erreflexioz, lortzen ari diren politikazko hezkuntza eta burruka partzialetan jasoriko esperientzietatik ondorio orokorrak lortzeko gaitasunagatik, inolaz ere natural edo eta bistako ez diren merkatal harreman kapitalistak gizarte kapitalistaren gaitz guztien iturri direla eta beraz, bete produkzio harreman batzuegatik aldatu ahal eta behar direla ulertuz doazenak. Langile hauk ere eguneroko praktikan harreman kapitalistak toleratu, pairatu eta birsortu beharrean aurkitzen dira, gizartetik at bizitzera kondenaturik ikusiko ez badira. Horrela, noiz behinka bakarrik, korromio, ardura, kezka, haserre, esperientzia partzial

eta ideia berrien pilaketak, langile masen (edo bederen abangoardia nahiko zabal eta eragingarri baten) kontzientzian iraulketa bat-batekoa ekar dezake. Bat-batean, masek instintiboki sentitzen dute ez dela ez normal ez eta nahitaezko burjesa izan dadila agintaduna; makinak eta lantokiak egunero lanean jartzen dituztenenak ezik beste batenak izan daitezela; lan indarra, aberastasun guztien iturri, edozein gauza bizigabe bezala erosten den salgai huts baten mailara beheratua izatea; periodikoki langileek beraien diru sarrera eta lanak gal ditzatela, eta ez gizarteak guti produzitzen duelako, larregi produzitzen duelako baizik. Orduan da, masek instintiboki, gauzak sakonki aldatzea, hau da, gizartearen egituraren eta produkzio eraren aldatzea bilatzen dutela. Eta ez bakarrik zerbakiaren, kohesioaren, baitasun-



naren fruitu den, baizik eta batez ere, lantokietan bakarrik daudenean, ekonomi botere guztia beraien alde aurkitzen denean lortzen duten boterearen fruitu den beraien botere neurtezinezkoaz oharitzen direnean, orduan greba zabal eta burrukalarari orotan agertzen dena, kontzienteki bermatzen da. Lehenengoz, langileek, egitez, kontrabotere bat osatzen dute, Herriaren politikazko, ekonomi, militar, kultur eta nazioarteko problema guztietan parte hartuz; beraien klase konponbideak burjeseriaren konponbide orori kontrajarriz. Orduan agertzen da azalera, botere bitasuna. Orduan da, azken aurpegi emateak, bere gogorkeria arerioaren erresistenzienekiko dependentzian duen matxinadak, hitz honen zentzu politiko eta militarrean, nork garaituko arazoa erabakiko duen unea: historiak hiltzera kondenaturiko burjes estatu zaharra (baina oraindik bizirik iraun dezakeena, langileen oldar eta argitasunak une dezixibo batean huts egiten badute, zuzendaritza

egoki bat ez badute), edo eta langile Estatu gazte erneberria.

IDEIOLOGOAK ETA BURJESERIAREN INTERESAK

Baina ere berean, kontuan izan behar dugu ere, beraren garrantzi handiagatik, masek gaurregun munduko punto ezberdinetan gertatzen diren nazional askapen mugimenduetan duten papera. Burjes ideologok, beraien aipamen ezberdinekin, nazio interesen defentsaren eskusiba beraien eskuetan dutela pentsarazi nahi digute. Baina azken batean, nazio askapenerako gerra guztiak harmatan altxaturiko masek erabaki zituzten eta dituzte, horrela independentzia atxekiz. Kolonia eta menpeko herrien pairamenari esker, hori etariko askok lauskitzen zituen uztarria astindu dute jadanik eta beste batzuek askatasuna eta nazio independentzia lortzeko bidetan daude.

Masen politikan parte hartzea amai-gabea da. Proletalgoarentzat, politika, beraren askapenerako eguneroko burruka da. Esplotatzaile, uztarpetik askatzeko burruka osoa, politikazko burruka bat da eta, beraz, masa herri-tarrek, kapitalismo barnean ere, dominatzaile klasearen politikan substantzialki eragin, indar atzerakoen asmoen burutzapenera oposatu eta gobernariak barne eta kanpo-politika mailan garrantzi handiko amorematuek egitera behar dezakete. Eguneroko burruka honek, paper bat jokatzen du gizartearen aurrerapenean. Bere eguneroko burrukan, proletalgoak berehalako helburuak errebindikatzen ditu, baina azken helburua inoiz ahantzi gabe. Masek erdietsi beharrezko histori xedea beti egon da eguneroko burruka praktikoengatik deslotua eta honek, nahiz molde zahar nahiz berriko erreformistentzat (zeintzurenzat berehalako helburuak dena diren eta azken helburua ez den ezer), nahiz eta helburua berehalako burruka oro mespretxuz gaitzesten duten eta "boterearen lorpena" helburu duen burruka soil-soilik balioduntzat jotzen dute "ezker muturrekoentzat" balio du. Errebindikapen iragankorren estrategia, bereizte hori gainditzen saiatzen da. Horretarako, orain arte gobernamolde kapitalistaren iraupena gauzatu duen egitearen konstatzietatik abiatzen da: berehalako errebindikape-nak erradikalenak ere, kapitalismoan ezin hobeto integratu ahal zirela eta produkzio eraren kontrapen osorik gabe burutu ahal zirela, oinarritzko arazoa, makina eta lanarekiko kapitalaren domeinua eztabidan jartzen ez zuten heinean.

GALTZAGORRI

KRISTATUAK ETA MARXISTAK BERRIRO

Bitxia da marxista komentzitua kristauei mintzatzen ikustea. Alderantziz bezalaxe. Baina interesgarria ere bada elkarri hitzegiteko aukera izatea, elkar ezagutzeko bide bakarra, noski, elkar entzutea delako.

Urtarrilaren 23an, Parisen, Partidu Komunistako intelektual bat, Jean Elleinstein jauna, Informatzaile erlijio-soen Elkarte profesionalean mintzatu zen, kristau eta komunisten, Elizaren eta Partiduaren arteko harremanek nolakoak izan behar luketen gaiari buruz.

Elleinstein historialaria da. Eta gizon irekiaren fama du. Bere Partiduaren Zentralismoaren gogorra eta demokraziarik eza, azkenaldi honetan maiz salatu ditu. Irekitasun hau bera agertu izan du kristauekin. Baina oraingoan bezain garbi ez du seguru aski sekula hitzegin. Hainbat fededunen aurrean zeharo bihotz beroturik edo.

AITA SAINDU MARXISTA

Intelektual marxista honen pentsakera zabala ondoko pasarteetan ikus dezakegu. Tamaina honetako alea edo paradoxa bota zuen: "posible deritzot, berandu baino lehen Aita Saindua marxista eta Partidu Komunistako idazkaria fededuna izatea".

EZINEZKO ELKARRIZKETA

Elkarrizketa taxuzkorik ez da posible, haren ustiez, nahasketak garbitzen ez badira. Instituzioen arteko elkarrizketarik, politikorik, moralik eta filosofikorik ez da posible. Eliza eta Partidu komunistak ezin baitaitezke berdin. Sarritan, Elizak alderdi politikoa, eta Partidu Komunistak Eliza dogmatiko balira bezala jokatu ohi dute. Elkarrizketarik izango bada, bakoitzak bere historia, gaurko egoera, eta biharko asmoak argi analizatu behar ditu.

Neomarxistengan nahiko zabaldurik dagoen pentsakera agertuz honela zioen Jean Elleinstein-ek Marxen erlijioarekiko eritziari buruz: Marxen erlijio kritikak balio zuen bere garairako, herriaren opio bezala erabiltzen zelako. Gerora, ordea, fedea giza izpirituairen dimentsio erreduziezina dela, eta aurrerapen zientifiko eta ekonomikoekin ere ez dela desagertuko ikusi da.

Eta marxismoaren autokritikan beste puntu hau ere aipatzen zuen: Marxismoa, zientifiko, beraz, absoluto izateko pretentsioz, materislismo filoso-



fikoarekin nahastu izan da. Eta berien bistakoa da, ikuspegi horretatik materialismo dialektikoa eta transzendentzia erlijiosoa kontradiktorio direla. Ezin daitezkeela uztar, hitzek baliorik badute behintzat. Horregatik "kristo-marxismoa edo krisautasunaren eta marxismoaren sintesiren bat eraikitzeke saio guztiak porrot egitera kondaturik daude" Elleinstein-entzat.

ELKARRIZKETARAKO BIDEA

Elkarrizketa posible izateko, fede mailan ez baino, beste batetan jarri beharra dago.

Kristauei zera eskatuko lieke intelektual marxista honek: "Elizak Vatikanoko bigarrenaren ulerpena sakondu behar du, botere politikoaren irrikari uko egiteko". Komunistei, berriz, beste hau: "Partiduak materialismo filosofikoaren gain oinarritzeari utzi behar

dio, eta teologi arotik politika arora pasa".

Argi dago, daba, Elleinstein-entzat, beste askorentzat bezala. Marximoaren baitan XIX. mendeko materialismo filosofikoa eta azterketarako metodologia bereiziz, fededun eta marxista izan daiteke. Fededun, sinismenari eta transzendentziari dagokionez; marxista, historiaren kontzeptzioari eta metodologiari dagokionez; eta komunistak, partiduz.

Ez legoke, ba, derrigorrezko loturarik materialismo ateoaren eta metodologia zientifikoaren artean. Elleinstein-ek "materialistatzat" bere burua jotzen duen bezala, beste batek fede erlijiosoa aitortzeko askatasuna du.

EZIN INOZO IZAN

Edonork daki, ordea, bestela dela errealitatea. Elizak, behin eta berriz marxismoarekiko etsaigoa goraki agertzen duela. Partidu komunistak eurokomunistak ere, beren aldetik, filosofia materialista hori garbi alde batera uztera ez dira iritsi; eta botera eskuratu duten Estatuaren ateismoa Estatuaren kredo bihurtzen dute.

Ez dago, bada, inozo izaterik. Eta Elleinstein ez da inozoa. Honen eritziak, elkarrizketak aldaketa askonak eskatzen ditu bai Partiduaren bai Elizaren aldetik.

Ekialdeko Partidu komunistak ere oso zorrotz epaitu zituen. "Leninek Marx errebisatu eta zuzendu egin zuen; eta desbideraketa mardulagoa da oraindik leninismoa bera gehienbat Stalinen idazkietatik ezaguna izatea. Ekialdeko herriei buruz, oster, ez naiz ezertan bat Hitler eta Mussolini bezain arrotz zaizkigun Partidu komunistekin".

Elleinstein-en mintzaldi hau Garaudy-k izenpe zezakeen duela hamar urte gutxienez. Ez dago ezer berririk eta jadanik sarri entzun ez dugunik. Teoriak argia dirudi; eta egun batez elkarrizketa benetakorik sortuko bada, hildo horretatik izango da noski. Baina teoriaren argitasun horri buruz zer pentsa sortzen zaio bati, praxian oso besterik gertatzen dela antzematean.

Marxismo eta kristautasunaren harremanen kontu honekin aspaldi aspertuta begaude ere, arazo horrek ez du oraindik gaurkotatzen eta interesik batere galdu.

MANOLO PAGOLA

HAURTZAINDEGIAK

HAURRAREN NORTASUNAREN

DESARROILOAREKIKO DUTEN GARRANTZIA

Haurra Haurtzaindegira bidali edo ez bidali, ba da oraindik ere hamaika eztabaida eta era guzitako aurreritziarik. Gaur, halere, arazo hau berraztertzerakoan, ez dugu Haurtzaindegietako zenbait arazo konkretu ukitu nahi izan, haurraren heziketa eta nortasunarekiko gogoeta orokor batzu agerian ipini baizik —teorikoki, esango genuke—, Haurtzaindegi arazoarekin zer ikusirik ba dutela uste baitigu eta eztabaida luze eta sakonago batetara bide izan baitakiguke.

Haurraren heziketa hiru urte dituenetik gora hasten den ustea hedatu egia dago eta, ere berean, amaren altzotik gertu ahalik eta denbora luzeagoan egon behar duela ere. Azkenengo hau da, agian, Haurtzaindegien aurka erabili ohi den arrazoirik gogorrena, hiru urtetatik behera ama behar duela beste zernahi baino areago, halegia, eta egunero berarekin egotetik ordutxo batzu lapurtzea negatiboki gerta dakiokoela bere nortasuna desarroilatzerakoan.

Behin eta berriz esan nahi genuke haurraren heziketa bere jaiotzegunean hasten dela, arnea izan den momentu berean ez bada. Sikologoek gero eta garrantzi handiagoa aitortzen diote haurraren lehen hilabetei, haurraren nortasuna hiru urte dituen baino askoz lehenago hasten baita zeritzen eta finkatzen. Hiru urte ditueneko, haurrak osatuxeak dauzka bere nortasunaren behin-betirako berezitasunak. Hain zuzen, hiru urterarteko garaian ari da haurra bere nortasuna "egiten" eta garai honetan behar du bere nortasun hau finkatzeko eta zertzeko laguntza. Galdera bat egitekotan, hau litzateke zuzenena: Zein inguru litzaioke egokien haurrari, bere nortasunaren oinarriko berezitasunak lantzen gehien lagunduko liokena?

HEZIKETA

Galdera honi erantzun egoki bat eman ahal izateko, egin diztagun lehenik gogoeta batzu. Lehenik, ez dugu uste heziketa aurrari zeinbat gauza irakastea denik (irakurtzea dela, abesten, marrazten, zenbait ohitura hartzen, e.a.) Hau, noski, heziketaren alderdi bat da; baina hezteak ez da bereziki haurrari jakiniza irakastea, bere inguruan daukan mundua erakustea baizik, bere burua ezagutarazteko eta

desarroilarazteko laguntzea, bere kabuz munduan zehar egoki jokatzeko irakastea, nortasundun norbait izaten laguntzea, pertsona eta gauzei aurpegi ematen jakin dezan laguntzea, bere burua errealizatzen laguntzea, halegia.

SOZIALAREKIKO NEURRIA

Bestalde, sozialarekiko neurria, gizakien "besterentzat" eta "besterekin" izan beharra mundu guztiak aitortzen du. Haatik, oso garrantzitsu deritzogun alderdi bat badago hemen, eta nahiko ohargabetan geratzen dena. Gizakiak bere burua desarroilatzeke, nortasunaren jabe izateko, besteen beharra dauka. Gizakia (gura kasuan haurra) ez baita "besteentzat" eta "besteekin" soil-soilik, baizik eta norberaren nortasuna (nolabait esateko), bere irudimenaren desarroilatzea, bere kreatibitatearena, bere kabuarena, bere sentsibilitatearena, bere adimenarena, bere askatasunarena, bere erantzukizunarena dira "besteekin" eta "besteekin" lantzen eta desarroilatzen ari direnak. Hitz batez, haurra besteekin elkargatuz helduko da, bere nortasunaren desarroiloari dagokion honetan, bakarrik inoiz helduko ez litzatekeenera.

Gizarteko beharretan parte hartzen da, batez ere, pertsonaren eginbeharrik bereziena. Gizona ez dago munduan pasiboki, gizarte bizi baten barnean baizik eta egunero gizarte honetaz baliatzen ari da eta gizarte hau aldatzen eta hobeagotzen. Bere burua eten gabe ari zaio inguruari egokitzen, giro eta eragin ezberdinei aurre ematen ikasi nahirik. Hau haurraren desarroilarako oso garrantzitsua denaz ohartu behar dugu. Mementu honetan gertatzen ari dena "elkarrizketa" bat da, ohartzuz edo oharkabean (haurraren kasuan oharkabean, noski), inguruko giroarekin etengabeko erlazio bat, halegia. Pertsonak giroa aldatzen du eta giroak pertsona. Haurrak beharrezko du bere burua lehenbailehen lagunartean ikustea eta komunitate bizi baten zati eginkor bat dela jakitea.

Orain arte esandakoak dira, gure usteetan, Haurtzaindegiek betetzen dituzten alderdiak eta alderdiok betetzeko dituzten ahalmenek osatzen dituzte Haurtzaindegien balio eta zergatiak.

HAURRAREN EBOLUZIOA

Esandakoarekin zerikusirik ba duen beste alderdi garrantzitsu bat ba da, eboluzio honek aldi ezberdinik ba duela, halegia. Sortzetik aurrera, haurrak zenbait aldi ezberdinetatik iragan behar du (bere nortasuna ezagutea, berea ez den nortasuna ezagutea, adimenaren, hizkuntzaren eta afektibitatearen desarroilo aldi ezberdinak, "zelo" problemak, e. a.), bere nortasuna finkatzeko garaipen-burruka etengabe. Haurtzaindegien lana da garai hau markatuago, egiazkoago eta biziago egitea. Hitz batez, haurraren nortasuna sendokiago tinkatzea. Lortutako nortasunaz etsitzea (hau da haurrarentzat errazena) edo aurrera jarraitzea borroka honetan Haurtzaindegiak ematen die superatzeko giroa eta lehen urteetatik desarroilatu behar duena desarroilatzeke giro egokiena ematen die Haurtzaindegiak, bertan mundu jori eta oso aberatsa bizi baitute beste haurren gizartean, guzti honek bere nortasunaren alderdi guztiak desarroilatzen laguntzen dietela. Askoz hobeto erabaki daitezke aldian aldiko estabaidak Haurtzaindegian, etxean bakarrik egonik baino.

AGINTE PUBLIKOAK

Haurrak Haurtzaindegira bidaltzea gurasoen berekoikeria besterik ez dela uste duen zenbait eta zenbait ba dago oraindik ere. Biok lana eginez eixera diru gehiago ekarri eta, gainera, haurtzaintza besteri utzi. Honela pentsa dezanak pentsa dezake ere Haurtzaindegiak berekoikerizko luxu direla eta zer dela eta laguntza eta subentzio eta Interes Sozial titulu eske dabilizan. Esandakoak aski izango dira (beste zenbait alderdi —amaren lanerako eskubidea e. a.— aipatu gabe) honelako mentalitateen ikuskera sozial eta hezitzaile kaxkarra adierazteko.

Gure ondorioa argia da: Haurtzaindegiak beharrezko direla, haurraren nortasunaren alderdi guztiak desarroilatzen laguntzen baitute, gizasemearen aldi oinarriko eta betirakoenean. Beste nolabait esateko, Haurtzaindegiak benetako giltzarri direla haurraren heziketan eta geroagoko Eskolak adina edo garrantzitsuago ere. Ba da garaia honetaz ohartzuz, Aginte eta Organismo Publikoek zentzuz joka dezaten.

BI TXORI



IRAULI

Bi txori, Irauli eta Iraun, kaiola batetan sartu zuen gizon hark. Kaiola horretan egonik hartaz gogorratzen ziren.

Txori biok mokoaz hasi ziren kaiolako adarrak apurtzen saiatuz. Biek batera... Noizbehinka iskanbilarik ere sortzen zen haien artean, baina lehena zen lana: kaiola apurtu eta askatuak izan.

Egunen batetan gizonak kaiola horretatik atera zituen eta beste batetara, handia eta politagoa hau, eraman.

Iraunek honela pentsatu zuen: "Gizonarentzat kantatzen badut hobeki tratatuko nau". Eta, egunero, gizona-

rentzat kantatzen zuen.

Iraulik lanari jarraitu zion; poliki, mokoaz, kaiola berriko adarrak apurtzen saiatuz.

II

—Iraun: Zer egiten duzu, Irauli? Honela jarraitzen bazara, lehendabiziko kaiolara eramango gaitu gizonak berriz. Orain kaiola handia da. Ez gaude lehen bezain txarto. Gaur ez da honela ibiltzeko eguna. Kanta dezagun biok eta ondo biziko gara. Janaria eta ura ez dugu faltaz izango.

Irauli: Baina hau, nahiz eta politagoa, kaiola bat da, lehena bezalakoa. Jarrai dezagun!


—Iraun: Hori egiten badugu gizona haserretuko da eta ez dugu janaririk izango. Gu ondo bagabiltza gizonarekin, ondo tratatuko gaitu.

—Irauli: Bai, beste kaiola batetan sartuko gaitu, eta adarrak burdinezkoak izango dira, eta orduan ezina izango da apurtzea. Kaiola hau egurrezkoa da... Ekin diezaiogun lanari eta alde agingo dugu. Askeak izango gara berriz.

Iraun.—Zoraturik zaude, laguna! Nik ez dut horrelakorik egingo...

III

Iraun haserraturik zebilen Iraulirekin. Beldurturik zegoen: "Gizona konturatzen bada, biok egiten dugula pentsatuko du". Eta handik aurrera, Irauliren lana tratatzen hasi zen. Baina Iraulik jarraitu zuen.



IRAUN

"Nik ez dudala errurik erakutsi behar diot gizonari", pentsatu zuen Iraunek, eta lortu egin zuen: Gizona korturatu zenean, Irauli lehendabiziko kaiolara eraman zuen. Iraun, berriz, beste kaiola polit-polit batetan (burdinezkoak) sartu zuen.

IV

Irauli, lehengo kaiola horretara eramanik ez zen damutu. Mokoaz jarraitu zuen adarrak apurtzen, eta, kaiola hori zaharra izanik, lortu egin zuen. Askatu zen eta mendietako zuhaitz batetan jarri zuen berriz habia.

Iraun, burdinezko kaiola horretan hil zen. Askea izan gabe inoiz ere.

EKATXA

DENA ARDERANTZIZ



Jende askok ezagutzen du nire herria, Karrantza halegia, eta ezagutzen ez dutenek behintzat, zerbait entzun dukete haren bizitzaz; esate baterako oso haran aberatsa dela. Baina ez du inork ezagutzen, ez eta Karrantzarrekin ere, nik behin ikusi nuena.

Ni mendizalea naiz eta igandeetan joaten naiz Karrantzako mendietara. Egun hartan, tontorretik hurbil negoziatzen eta bero handia egiten zuelako, harritu baten ondoan geratu nintzen ur apur bat edateko asmoz. Bat batean, ahotsetatik irteten zirela; lehenbizikoz, zehar harrituta utzi ninduten ahotsok eta beldur nintzen, baina gero astiro astiro lasaitu egin zen nire burua. Jadanik lasaia eta jakinnahi handiz, begiratu egin nuen zulo hartatik baina ez nuen ezer

Ez dakit hain jakina den Anton Txejov-ek, Errusiako Akademi kidea zelarik, dimititu egin zuela, zeren eta gobernu ez baitzuen nahi berronesterik Gorkiren hautapena akademiko bezala. Gertaera hau 1902an jazoa da, haren heriotzea baino bi urte aurretik.

Gaur egun ez da zaila asmatzea bietarik zein den irakurriagoa ezkertiarren aldean: Gorki jakina. Honek "Ama" nobela idatzi zuen, zein, irakurtzea maite dugunontzat, "literatura iraultzaile"aren barrutian gailen legez onetsia baita. Garbiro urratua daukat nolako zerikusia izan zuen-eta ene usiez irauten du zerikusi horrek iraultza benetakoaren eragozpena gertatzen den mistika bori baten ahalez. "Ama-
ren" irakurketak ezkerreko hesietan: iraultzarako, edozein ikaslek bete behar zuen erritua zela esanen nuke. Hara, ez noakizue hemen haika aldiz esandako egia errepikatuzera, ezkerre ere erlijio taupadaz higitzen dela, halegia. "Ama" irakurtzea funtsezkoa zen, zeren eta han azpiratuetaz, parietiaz, hots, gutaz, mintzatzen zen. Narzismo higuigarria baizik ez.

Gure argakia edo miratila zen — jadanik hori dela diote— hargatik zertorkigun irakurtzearen premia. Literaturarekiko koalitateak guttiena ziren. Aldiz, Txejov-i hortik daiorkio hain gutti irakurria izatea ingurune horietan. Ardurarik ez du bere obrak, zein: "Amildegian" "Stepa", "Sala 6 zenbakia", "Mujiks" eta beste hainbat ipuinek motz uztea Gorkirn obrarik nabarmena.

Ondorioa, zuhurra berau, datorrena da: ezkerri bost axola zaio literatura. Eskuinari berdin gertatzen zaiola esa-

KARMELEri



Anton Txejov

nen didate. Halatan da egia, eta berau, paradoxikoki are tamalgarriagoa baita, zeren eta literatura eskuinaren "gauza" eskusiboa balitz, jadanik orduan jauregiaren konkistara abiatuko bailirateke ezkertiarrek, eta hain bitxia den zerbait guztien eskumenera erakartzea lortuko bailukete —horixe baita azken finean, iraultzaren asmorik sanoena, anaiartekotasun unibertsala—. Baina ez, ezkerrean, zein eskuinean, literaturaz interesatuak lau katakume gorri baizik ez dira.

Azken erranaren ostean, batzuk horrela ihardetsiko dutela iruditzen zait: "Literatura baliosa da soilik noiz eta..." Hemen amen. Marx bera baino marxistagoak. Marxek Frantziako ko-

munan partaide zen baten trilogia, literaturaren ohoretan gaitzetsi zuen, hain zuzen, Marx literaturazale handia baitzen: Shakespeare-ri zion debozioa ezagutzen dugu, halaber ba dakigu ere "poeta bati edozer burka dakiokela" esan zuela. Gaur egun bere jarraitzailetarik, zenbatek dute literatuarekiko atsegin hori, adjetiborik erantsi gabe?

Herria baldin ergela bada eta gainera, ongi hausnartzen ez badaki, bigarrena historia zailez haren burua ez nahastekatzea da eta ahia eskaintzea, molde honetan jokatzeko du hainbat eta hainbat buru ezkertiarrek. Horrela Marcel Proust-ek (hain elitista berau, irakurri ez dutenentzat) zera dio: "Arte herrikoi baten asmo hori, halaber abertzale artearena, perilosa ez izan arren, irrigarri iruditzen zitzaidan. Herriarentzat zerbait eskurakoa egin nahi bazen, formaren orrazkerak sakrifikatuz, "ona nagientzat", nik aski harreman eduki nuen goi mundukoekin, benetako letragabeak berak zirela ohartzeko eta ez, ordea, langile elektrikariak. Honetaz, formari atxikituriko arte herrikoia, Jockey-ko bazkideei zuzendua legoke, eta ez hainbeste, Laneko Konfederakuntza Orokorreko (C. G. T.); gaitaz oster, hala nobela herrikoiak asperitzen du herriarra, nola haurra beretzat idatzitako liburua."

IGOA AIZPURU

Ni sartu naizen ezkertiarrek jarriko dizkidaketen bainak:

a) Beno, eta nork-dio literatura zerbait garrantzitsua denik?

b) Eskuindarren eta ezkertiarren atentzia erakaritzen duen edozer, literatura bezala, berez zorigaitzekoa da.

ikus; orduan, haritzaren adar batek zeinu bat egin zidan barrurantz sartzeko, eta egin ondoren, nire gorpuzari bultzada bat emanez haritzaren bihotzarenganaino bota ninduen. Bi minutuz egon nintzen, guttinez, jeitsi eta jeitsi, landa dotore bategaraino heldu arte.

Nire ondoan, baserri bat agertu zen eta baserriaren alboetan behi eta ahuntz batzuek lanean. Lehenbiziko honetan, dena normala egin zitzaidan baina, gero, pentsatu egin nuen nire barruan "Behiak eta ahuntz lanean jori arraroa da"! Orduan ahuntz bategana hurbildu nintzen eta galde egin nion, ezpainenetan irribarre handi bat nuela: "Zer, lan handia?" eta erantzun zidan "Baaaaaaiiii". Hau entzunda, zeharo izaturik, harrapaladan ihes egin nuen leku hartatik, nire baitan

galdetzen "Zer da hau? non nago?, ahuntz batek hitz egin dit. Ahuntz batek!"

Arnas hestuka, menditxo batetara heldu nintzen eta handik gizon talde batzuek nituen mendiko landetan, baina, larru gorritan zeuden! eta belarra jaten ziharduten!! Apur bat gehiago aurreratu nintzen eta zera entzun nuen talde baten kideei: "Humm, humm, gozoa da eremu honen belarra, bai oso gozoa!" Eta erantzun zuen kumetxo batek: Zuentzat izango da!, niretzat oso txarra baita!"

Eta haren amak: "normala da laz-tana!, zuk oraindik ez duzu hortzik eta horrexegatik nire ditien esnea edan behar duzu, baina laster hortzak haziko




zaizkizu eta ahal izango duzu belarra jan".

—Oso ondo ama, oso ondo, hau bai dela bizimodu! gu beti jaten ari gara, eta gero, gauaren hotzak heltzean, jabeek etxera eramango gaituzte eta ohe bigun batean, lo egingo dugu".

Hau gauztiau ikusiz, nik zera pentsatu nuen: "Hemen dena alderantziz dago eta ahuntz edo behi batek ikusten baldin banau, beharbada eramango nau alhatzera. Gainera berandu egin zait, eta erakuntza hau biziki atsegin dudana arren, etxera joan bear dut. Eta orain, non egongo da irtenbidea?" Baina ia amaitu gabe, jakin barik nola, haritzaren ondoan agertu nintzen, eta oso positiboki ikusitakoagatik etxeratu egin nintzen.

CARLOS-ek

Gizaki



HEB

HERRI BATASUNA

**DEFRAUDATUKO EZ DUEN KANDIDATURA BAT
HERRIEN ATZETIK PAKTO ETA KONPONKETARIK GABE**



**Konstituzioarekin hartu zenuen jarrerarekin kontsekuente izan !
Hemen, ez da inor engainatzen. Puntu guztiak ageri daude.
HERRI BATASUNARI zure botua ematea ondoko puntuokin
ados egotea da.**

- Amnistia osoa, askapen demokratiko osoak (alderdi guztien legeztapena)*
- Indar zapaltzaileak, zatika, baina aldez aurretik erabakitako epe batetan barruan Euskal Herritik kanporatzea*
- Indar harmatuak euskal gobernuak kontrolatzea .*
- Langilei hobekuntza jeneralduak ematea*
- Autodeterminaziorako eskubideak eta boterea emango dituen AUTONOMI ESTATUTUA ematea.*

**HAU UTOPIA IZANEZ GERO, EUSKAL HERRI BAKETSU,
DEMOKRATIKO ETA BIZI DAITEKEEN BATETAN SINESTE A ERE
UTOPIA DUZU.**

U. E. U. BERE IDENTITATEA BILATZEN

ANAITASUNAren 374 zenbakian esaten genuenez, U.E.U.ren berri urtean zehar emateko asmoa dugu aurten, sarri askotan euskaldunok geuregeure diren iniziatiba, ekintza, erakunde etabarren berri partzialki baino ez baitugu jakiten.

Geroz eta gehiago, zorionez, U.E.U. osatzen duten ikasle, irakasle eta kultur taldeen urtean zeharreko lana areagotuz doa eta ba dugu dinamika honen berri emateko abagadunerik.

Ongi ohartzen gara, bestalde euskal prentisaren eremua, irakurlegoari dagokionez, oso mugatua dela. Baina euskal prentsa mila oztoporen gainetik zaintzen ari den koherentziagatik, eta U.E.U.k berak euskal izateari zor dion guttienera begiruneagatik, konszientki, euskal prentsara (komatxo tartean jarri beharrik ez duen euskal prentsara) mugatzen gara.


EGITURA ZAHARKITUEN INERTZIA

Iniziatibaren batek, "ofizialtasunetik" at sortzen denean, izaten du, zenbait erakunde babestuk ez bezala, berrikuntza-kutsurik eta gizartearen eskakizunekiko sentiberatasun biziagorik.

Hauxe litzateke U.E.U.ren kasua ere. Grina honekin sortu zenik, ezin uka. Hónela definitzen zuen U.E.U. **ANAITASUNA**k, Donibane Lohitzuneko bigarren ekitaldiaren bukaeran, 1.974ean: "Unibertsitate pertsonala eta iraunkorra, ez da gela pila handi bati eta erakunde geldikor bati lotua. Dinamikoa izango da Euskal Unibertsitatea, Euskal Herri osoan zabaldua eta irakasle eta ikasle taldeek osatua".

(ANAITASUNA, 282. zenbakia).

Baina, asmoak asmo, aitortu egin behar dugu, kostatu egiten zaiola U.E.U.ri, bere bilakaeran bide berriok urratzea. Zenbaiten ustez, molde klasikogietara makurtu zaigu U.E.U.ere. Kritika hau, U.E.U.ren barnetik egina eta, beraz, onhargarria, puntu hauetan gorpuztu da, batez ere: klaseak gehiago gotortu dira, mintegiak baino; irakasle-ikasle arteko bikoiztasuna mantentzen du; U.E.U.ren herriratu ezina; zenbait gairen hutsunea...



Azpimarratu behar da, hala ere, urterik urtera, urrats berririk eman izan dugula, ia nola zenbait talderen finkapena, urte osorako Idazkaritzaren eraketa, lanen prestaketa eta argitarapenak, etab. Baina beti gaude zerbait jatorragoren egarritan... molde zaharkituak gäinditu nahian.


DATORREN UDARAKO ASMO BERRIAK

Abenduaren 29an, egin zen Donostian VII. U.E.U.ri buruzko azken bilera. Nahiz eta bilera hartara, ez jende asko azaldu, U.E.U.ren hurrengo ekitaldietarako interesgarri gerta daitekeen proposamena egin zelakoan nago.

Proposamen hau, laburki esanda, hauxe izan zen.

U.E.U. urte bakoitzean kokatzen den tokitik hurbil dagoen **HERRI BAT** zenbait ikuspuntutatik aztertzea. Egun batez, egun bat ala bitatik behin, datu-bilketa egingo litzateke "in situ", eta beste batez, bildutako datuei buruzko Mintegiak, hamabostaldiko egunak txandatu.

Ez dago esan beharrik, lan-metodologia hau ez dela Sail guzientzat aplikagarri, baina bai hainbat Sailentzat. Aipatu ere egin ziren Sailok Donostian (Geologia, Biologia, Medikuntza, Historia, Geografia, Arteak, Demografia, So-



ziologia, Hizkuntzalaritza, Feminis-
moa) eta Sail bakoitzarentzat, adibide
gisa, gai batzu eman ere bai. Bizpahiru
talde bide honetatik abiatzeak,
U.E.U.ri haize fresko berririk ekar die-
zaiokelakoan nago. Saiatze, guttienez,
mereziko luko.

Asmo honek, burutuz gero, hainbat
alde positibo lituzke, goian azalduko
kritikari erantzun jatorra emanen lie-
zaioketenak. Konkretoa ditzagun batzu:

—Gaurko Fakultate unibertsitario
ofizialek errazten ez duten langintza
posibleuko luke. Irakasle eta ikasleek,
elkarlanean, gure herriari buruzko az-
terketak egingo lituzkete, ikasleengan
ikerkuntzarako grina sortuz. Eta lan-

gintza horretan trebatzen hasiko lira-
teke, noski.

—Disziplinarteko plangintza minimo
baten lehen pausoak urratzen hasteko
saiakera bilaka daiteke.

—Irakasle eta ikasleek, lan berdi-
nari loturik, Mintegietan burutuko lu-
kete, batez ere, lana. Ihazko Udako
Euskal Unibersitatean, Jose Miguel
Barandiaranen presentzia baliosa ukan
genuen. Behin eta berriz errepikatu zi-
gun MINTEGIAK ugaldu eta
indartzearen premia.

—U.E.U. herriratu beharra abs-
traktoki proposatzea, ezer ez proposat-
zea bezalatsu da. Has gaitezen, bada,
herri konkretuetara hurbiltzen. Propo-
samen honek eskaintzen du horreta-
rako biderik. Herriko jende, talde eta
erakundeekin harremanak izateko
erak erraztuz alde batetik, eta lanen
ondorioak agertzeko erak bideratuz,
bestetik.

U.E.U. ... ORAINDIK BEHA- RREZKO

Demokraziaren ekarpenak amesten
genituen Diktaduraren garaiko urte
luze beltzetan. Euskal herrigintza ofi-
ziala, demokraziaren balia bideak
probatzen ari zaigu gaur. Ez goaz
horren balorazio politikorik egitera, ez
baita artikuluko honen alorra.

Baina Euskal Herriak, lehen bezain
erdaldun jarraitzen du. Eta zenbait ka-
sutan lehen baino okerrago dagoela
esango nuke. Euskara, euskal kul-
tura... kixotekeriak ditugu oraino.

Euskal Herria berreskalduntzea ez
da, ez, txantxetako kontua. Gauden
egoeran, egin daitezkeen ahalegin guz-
tiak gutxi direlakoan gaude. Euskal
Gizona, bertakoa nahiz etorkina, ezin
abiatu izango da, tamalez, mimetismoz
euskalduntzera, ez baitio herrigintza
ofizialak ezertariko ispilurik eskaint-
zen.

Kinka larri honetan, U.E.U. ere eus-
kal diglosiaren alde jarri behar. Zoko-
raturik jarraituaren, bizirik diraugula
frogatu beharrean gaude. Bizitzaren
froga, urrats berriak irekitzea nahi ge-
nukerik 1.979eko Udako Euskal Unibert-
sitatean.

MARTIN ORBE

EUSKAL ARAZOA FRANTSES IRRATIAN

Urtarrilaren 19ko eguerdian, eta
larunbateko, hamabietatik erdubie-
tara Radio France delakoak
zabaltzen duen programan hurrengo
gaiaz hitzegin zen: Euskal Herriko
egoera sozial eta politikoa.

Hori egingo zela entzun nuenean,
oso beldur izan nintzen ea betiko
gauzak esango zituzten, terrorismoa
eta biolentzia gora eta behera aipa-
tuz. Hala ere, oraingo honetan, ego-
rearen azterketa egitera dedikatu
beharrean, muntaia soil bat egin zu-
ten, non kaleko jendea, PNVkoa,
UCDKoa, Euskal abertzaleak, ETA-
koak eta abarrekoak egon baitziren.

Gaiak nolabait ordenaturik zeu-
den, hau da, hari bati jarraitzen
zitzaien, eta mementuko gaiaren in-
guruan, batzuk eta bestek beren
eritziak ematen zituzten. Parte
hartzan erdian, euskal kantak, mani-
festazio askoren grabaketak entzun
ahal ziren.

Programa horri akats bat aurki
dakioke agian, gure arazoak ezagu-
ten ez dituen batentzat pixka bat
nahasia izan zela behar bada, hau da,
oso tendentzia desbendinetakoak
bata bestearen atzean mintzatzean,
nahasteborrastea egon zitekeen.
Hasieran, bai, izenak ematen zituz-
ten, edo eta, pertsonen jarrera poli-
tikoak, baina ezagutu gabe, zaila
izan ahal zen batzutan ulertzea.

Bestalde, Euskal Herrian ondotxo
ezagutzen duen pertsona batentzat
ez zen han beste munduko gauzarik
esan, baina frantses estatuan egi-
teko, asko izan zen, zeren eta bi or-
dutan edonork uler baitzezakeen,
gutti gora behera, nondik nora dabi-
len jendea Euskal Herrian, eta
zeintzu diren hemengo jarrera des-
berdinak.

Frantsesak nahiko neutralak izan
ziren, ohizkoa izan ez arren, jendea-
ren ahotsa grabatu eta muntatzera
bakarrik saiatu baitziren; eta hizlariak
aukeratzean, ez dago dudarik dene-
tatik hartu zutela.

Ez dut ueste inoiz Euskal Herrian,
horrelako programarik egin denik,
hemen partzialkerieik ohituegi gaude
eta.

Oraingo honetan ikasgai ederra
eman digute frantses Irratilariek.

MIREN ALDAMA

KARTELDEGIA



LA FILLE DU GARDE-BARRIERE, Jerome Savary-rena (Frantzia 1975). Mona Mour, Michel Dussarat, Jerome Savary eta Magic Cirus-ekin. Gidoia Rolnad Topor-ena da, Griffith-en estilora eginda eta Mack Sennett-en lan batetat oinarriturik. Savary-k omenaldi bat eskaintzen dio zinema mutuari eta bereziki Méliés-i. Filmea haren troupek ekitpoan egina da, (zinemaren hastapenetan bezala, zinema zirkoa, barraka zenean), eta horrela filme libertigarri, umore belzdua, erotikoa eta absurdu bat lortzen du, omenaldi hauek suposatuta ohi dituzten arriskuetatik urruti. Ondo pasatzeko filme bikaina.

I MOVI MONSTRI (Biba Italia!), Ettore Scola, Dino Risì eta Mario Monicelli-rena (Italia 1978). Vittorio Gassman, Ugo Tognazzi eta Alberto Sordirekin. 12 sketchetan eginiko filmea, non gaia italiar gizar-tearen pertsonaiak diren, egoera limite-etara eroanak, umore erregarri eta garratz bat agertzen digularik. Azpamarkat-zekoa, gidogile eta aktoren lana, filmea orain langabeturik dagoen Ugo Gerra gidogileari laguntzeko egin dutenak.

SWEET MOVIE, (Frantzia, Canada, Alemania 1974) Dusan Makavejek-ena. Wilhem Reich-ek "organismaren misterioak" errealizatzean, haren herritik ateratzen Jugoeslaviar zuzendari honen bostgarren filmea dugu. Filme bizi eta inkoherentea. Arian eta zinema publizitarioaren arteko mahasmendua, Godard eta undergroundena, egoera konplexu zabaletan agertzen diren sinbolo eta eskema primarioz beterik. Filmearen planteiamendu teorikoak fotografia bikain batek iagundurik daude, eta nahiz eta berak inkoherenteak izan filmean zehar gertatzen denaren presentzia fisiko handi batek salbatzen ditu. Planteiatzen den kuestioa, zera da, posiblea ote da sozialismoa, boteretik, agintaritzarik eta kontrolik gabe? Galderari erantzun positiboa ematen zaio amaiera garrantzugarri batez. Alaitasun handiz



EL CASANOVA DE FEDERICO FELLINI



CAROLE LAURE • PIERRE CLEMENTI • ANNA PRUCNAL • SAMI FREY
MARPESSA DAWN • ICHIN VERNON • U.S.M. PRODUCTION-PARIS

egina eta ikusteko biziki interesgarri gertatzen den filme bat.

ERLAUNTZAREN IZPIRITUA, Victor Erize-rena (1973). Jaiotzez gipuzkoarren zuzendari honen filmerik onenak, gerra osteko beldurra transmititzen digu haren herriko zinematokian Frankenstein ikusten duen neskato baten begiez. Sentikorra eta sakona, alegoria eder bat.

ETAT DE SIEGE "Setio egoera" Costa Cavras-ena (Frantzia, Alemania 1972) "Z", L'aveu eta Section Special (Jorge Semprun-en gidoiak hirurak) filmeen egilea den zuzendari honek bere filmerik onena lortu du, Franco Solinas-en (Pantecorvoren ohizko gidogilea) gidoi baten mamituerik. Filmea USAren penetrazioa Hogoameriketara ari da, tupamaroen artean desarrolatzen den intriga istorio bat. Gure oraingo egoeran aplikagarri eta erabilgarri izan dakigukeen pasarte asko agertzen duen filme didaktikoa.

FELLINI CASANOVA, Federico Fellini-rena (1976 Italia). Mito italiar baten bitartez, garai batean laketzen den unibertsitate barroko eta sentsuala erakusten digu Ferruccio Fellinik. Lehenengoz antipatiko zuzendari pertsonaia bat erabiltzen du zuzendari famatu honek: emakumeak objektu legez bakarrik ikusten dituen gizon baten istorioa. Enpago samarra iduri daiteke baina bigarren ikusketa batean, Satiricoren farsek, Fellinik proposatzen dizkigun egoerak eta laketa imaginatiboetat gozatzeko. Amarcord berri bat espero zutenek ihes egitea kontseilatzen diegu.

KOMENTU BATEN BARNEA, Walerian Borowczyk-ena (Italia, Frantzia 1978). Stendhal-en obra batean oinarriturik. Aurrekoak baino interes guttiago agertzen duen filme erotiko bat, baina zuzendari honen ohizko talentu eta gustu onaz egina. Autoparodia bezala har daiteke. Monjen frustrazioak oraingo karteldegietan modan ditugu, baina filme honek pornopaeilarekin izan dezakeen antizinkontzidentzia hutsa da.

I CANNIBALI, Liliana Cavani-rena (Italia 1973) Italiar emakume zuzendari hau, "Gaueko atezaina" eta "Ongia eta Gaizkia baino haratzago" bezalako film handiosak egiten darrai. Honen filme berak atakutzen dituen akats guztiak erortzen dira, halabaina, filme honek beste biak baino lehenagokoa denak, interes handiagoa lortzen du, Pasolinik Pencil-n agerturiko ideia bat: menekoak ez zaizkion semeak jaten dituen gizar-tearen planteiatzen baitu lengoia bilaketa berritartez.

L'AGE D'OR, Luis Buñuel-ena (Frantzia 1930). Subertsio eta maitasun eroaren aldeko ekinzarik exaltatuena, zinemaren historiako filmerik debekatua eta subrealismoaren obra nagusia. Iker beharrekoa.

SIMON DEL DESIERTO, Luis Buñuel-ena (Mexiko 1965). Erlitio alegoria bat, jaiateo eta blasfemia, guztiz aberasgarri honetan Nazarin eta Viridianako planteiamenduak azken fineraino erortzen dituzte. Zinemaren historian, filmerik libertigarrienetariko bat.

J. J. BAKEDANU




"Filmaren ikuspegia halabeharrez eta desesperazioz sortu da. Casanovagandik, XVIII. mendetik eta hortaz idatzi izan den orotatik urruti". (F.F.)

IL CASANOVA DI FEDERICO FELLINI

Federico Fellinik beti esan du kontratu bategatik eta arazo ekonomikoengatik egin izan duela "Il Casanova di Federico Fellini" delako filme hau. Hala ere filme arras interesgarri eta pertsonal bat burutu duela esan daiteke. Giovanni Giacomo Casanova, Seignaulteko jaun veneziarra, 1725ean jaio eta 1798an hil zen Bohemiako Dux herrian. Argien mendeko bidazti, abenturero eta maitatzailea, idatzia utzi zuen bere Memorien liburu mardul bat. Casanovak bere mitoa sortu zuen bere autobiografiaz: "zentzumenen atsegina lantzea izan da beti nire negozioerik garrantzitsuena" zioen. Azken urteetan ostera: "Berrogeita hamazortzi urte ditut. Ezin naiteke oinez ibil eta hurbiltzen dakusat negua, eta ene abenturero bizimodura berriro abiatzea gogoratzen baldin bazait, barreka hasten naiz izpiluari begira". Edozelan ere, Casanova bere oroitzapenetaz baliatu zen bere mitoa eraikitzeko. Bi filme egin izan dira herriki mito honi buruz. Luigi Comencinik "Infanzia, vocazione e prime esperienze di Giacomo Casanova, Veneziano" delako filma gaztaroaz eta Pasquale Festa Campanilek "Il ritorno di Casanova" zahartzaroaz. Bi bertsiok, hala ere, ez dira iriteten Casanovaren mitoaren orbitatik, eta adaptazio zinematografiko arrunt bat egiten dute. Beste bertsiok bat da interesatzen zaiguna, Fellinirena, zeinean autorea bete betean sartzen baita obran eta tituluari isladatzen denez (Il Casanova di Federico Fellini), autorea eta gai bereizitezinak bihurtzen diren filmean.

Hasi ere veneziar ihauterian hastea adierazgarria da. Oro da errepresentazioa eta maskara. Ihauteri munstro eta aldakor honek ia obraren ezaugarririk funsezkoena finkatzen du: *Film con una sola immagine, eternamente fissa e continuamente ricca di movimento* Felliniri laket zaionez.




Errepresentazioa da oro eta uni-bertso teatral hontan Casanova pertsonaia bakun gisa agertzen da. Beti dago presente ikuslegoaren falta, maitasuna egiten denean ere beti da mekaniko eta eragina, espazioa beti da atzeman ezina, gorputzak beti makilajeaz nahiz keinuaz izkutatatuak. Casanova (Donald Sutherland aproposa) urruti da besteengandik, eta bere buru propioarengandik ere urruti da. Errepresentazioa da oro, dekoratu eta musika adierazten denez, eta ondoan ez da usteldura besterik, kolore zurbil eta ubelak, eskenategia mausoleo bat bailitza. Ihauteri fellinianoa etengabe isladatzen da pantailan. Ametsak eta

fantasiak ere norbera haietara entregatu gero, benetan errealak direla baieztatzen du Fellinik. Imajinak, situazioak, keinu groteskoak, arkitektura barrokoak, kolore orituak, plastikozko itsasoak, diti erraldoiak, suzko artifizioak... musikazko xoritxo metalzkoaren erritmoan larrua jotzen da eta, aldiberean, hondatuz doa oro, ustelduz doa Casanova, bere gorrotoa deklaratu dion Felliniren eregin eta zuzendaritza trebarean arauera.

Gorrotoa aipatu dut eta azaldu egin behar da ideia hau. "Casanova... faxista bat da, faxismopean ezagutuko den asto simple bere buruaz harro horien aitzinapen gisako bat" zioen Fellinik. Baina esan du baita ere Casanova, hau da, "Casanova" ez dela esistitzen, anekdota bilduma bat besterik. Ene us-tez hemen datza arazoaren funtsa. Casanovak ez al zuen bere burua inbentatu bere memoretan?. Casanovak "Casanova" inbentatu zuen, Fellinik filme hontan bere "Casanova" ez da inondik ere interpretazio historiko bat edo indibiduo bat bere garaian konprentitzeko ahalegin bat. Felliniren asma-kizun barroko eta dekadentista bat da, trebea eta samina. Memoriak eta Comenciniren filma bezain fiktizioa den arren (zer dira fikzio besterik biografia, autobiografia, literatura eta arte oro?), Felliniren obra fikzioaren maskarak ere agertzen dira. Fellinik inbentatu eta eraik egiten du errepresentazio erraldoi hau. Hona hemen ihauteria. Hona hemen tresneria ere.

JOSEBA SARRIONANDIA



Europa P.N.S:
Curiosa costumbre

la de estos nativos
de andar con
brazos en alto.

El doctor Ullwardt
le atribuye un significado...

magico-religioso que bla bla bla su su
su... pliti-plista patapum chim
pum... etc, etc

vi...
...
...
...
...

San Sebastián, P.N.S. Englewood,
Gleason on 1860
4th floor
New York City, N.Y.
10011

San Sebastián, P.N.S. Englewood,
Gleason on 1860
4th floor
New York City, N.Y.
10011

15943.5

J. Ehrenke-79



SUPERNOBAK BESTE GALAXIATAN

Gaurko artikulu honetan unibertsoak oraindik argitu nahi ez digun problema bati buruz arituko gara, supernobei buruz, alegia. Baina hasi baino lehen komenigarria izango da supernoba bat zer den jakitea.

Supernoba izar baten lehertzeari deritzogu. Supernoben estudioak ia mende oso bat bete du. oraindik ez dago garbi, fenomeno hau zertan oinarritzen den. Durudienez, galaxia bakoitzean ehun urtero bi supernoba agertzen dira gutxi gorabehera. Gure galaxiakoa izan eta Lurretik ikusi ahal izan zen azken supernoba, 1604ean sortu izan zen. Bost urte beranduago teleskopioa asmatu zen. Egungo teleskopioekin beste galaxiak ere erraz ikus daitezkeenez gero, ez da harritzekoa, bizpahiru hilabetero supernoba baten berri izatea.

Azken 90 urtetan ia 400 supernoba aztertu dira beste galaxiatan. Astrofisikori gehientsuenen eritziz, supernoba bat lehertze biolento bat da, bertan izarra deuseziuz. Pentsatu da, halaber, supernobak etengabe Lurra bonbardatzen ari diren izpi kosmikoen jatorri direla.

1885. urtean, gur galaxiatik kanpo zegoen eta orain arte ezagutu den dizdira handieneko supernoba aztertu zen. Bera Andromeda Nebulosa Handian aurkitzen zen. Denbora hartan ez zekiten oraindik, Lurretik harainoko distantzia zenbatekoa zen. Baina 1920. ean, Hubble jaunak distantzia hori neurtu zuen. Ez zen hasieran pentsatzen zen bezala, zenbait milaka argi-urte adinekoa, ehunka milakakoa baizik. Orduan ikusi zen, supernoba haren dizdira bildugarria izan zela, izar normal batena baino 10.000 miloi

aldiz handiagoa gutxi gorabehera. Baina supernoben ikerketa sistematikoa, ez da 1934 urtearte hasten. Urte honetan Fritz Zwicky, Californiako Teknologia Institutukoa bera, 82,55 milimetrotako lente batez, supernoben bila hasi zen. 1936.etik 1939. urtearte 12 supernoba aurkitu zituen (ez ahaztu aurreko 50 urteetan 21 bakarrik aurkitu zirela). Bera izan zen, supernobak lehertzean zirela aipatu zuen lehena. Beraren laguntzailea zen Minkowskik, 1940. ean supernobak bi tipotan banatzen zituen: I tipoa eta II tipoa. I tipoko supernobek, oso talde homogeneoa osatzen dute. Galaxia elipikoetan aurkitu izan diren supernoba bakarrak dira. Uste denez, oso zaharrak dira, eta guztiak eguzkia baino txikiagokoak. Honelako supernoba bat aztertzen ikusten denez, bere dizdira maximoa oso egun gutxi barru lortzen du, egozera honetan beste egun batzuek iraunez; eta hurrengo 30 egunetan, bere dizdira gutxituz doa, itzali arte. Tipo honetako supernoba baten dizdira esponenzialki gutxituz doa.

II tipoko supernobak, berriz, ez dira hain homogeneoak. Galaxia espiralen besoetan aurkitzen dira, eta hoietan izarrak normalki gazte eta handiak izaten dira. Beraz, normala zen supernoba hauek izar gazte eta masa handikoen lehertzea bezala konisideratzea. Ondoren egindako azterketek, asken eritzi hau konfirmatzen zuten. Supernoba hauek segidan heltzen dira dizdira maximora, eta oso gutxi mantentzen dira egoera honetan, 25 egun barru ahulduz. Baina dizdira ez da lehen bezala esponenzialki gutxitzen. Lehenik, puntu batetaraino gutxiten da, bertan 50, 100 egun mantetzen da, azkenik desagertu arte gutxituz.

Supernoben azteketek izar horiei buruzko informazio asko eta asko eskaini digute. Honela, baldin eta distantzia ezaguna bazaigu, izarraren erradio dizdira maximoa denean kalkula dezakegu, momento horretan duen tenperaturà eta erradiazio-fluxua ere kalkula bait daiteke. Honela eginik 1970 urtearen bukaeran aztertutako supernoba baten erradio, momento horretan 3×10^{14} cm-takoa izan zen, hau da. Urano planetaren orbitaren erradioaren adinekoa. Noski, erradioa ezagutu ondoren, dizdira kalkulatzeko posible zen. Beraren balio absolutua 10/42 ergio segunduko izan zen, hau da, eguzkiarena baino 1000 milioi aldiz handiagoa.

Baino bada oraindik gehiago. Datu espektrofotometrikoak eta banda zabalako fotometrikoak erabiliz, supernobaren erradioaren denborarekiko aldaketak kalkula dezakegu. Lehertu eta handik 30 egunetara, argia emititzen dueneko azalera, oraindik 5000 km/s abiaduraz handitzen da, ordurako supernoba honen erradioa 2×10^{15} cm-takoa izanik, hau da, gure eguzki-sistemaren erradioa baino askoz handiagoa.

Azalera hau kanporatuz doan eran, tenperatura ere gutxituz doa, 6000°K-etara helduz. Azalera hau bere hedadura maximora heltzen denean, ordurarteko opakutasuna galduz, garden bilakatzen da. Hau dela eta, erradioa txikitzen hasten zaigu, honela dizdira gogorki gutxituz.

Supernoben erradioak hain izaten dira handi, non haiek neurtzeko, unitate bezala 1000 milioi kilometro erabiltzen bait da.

J. J. ELHUYAR

ZENBAKIEN ERABILERA (eta IV)

Praktiko gertatuko delakoan, zenbaki-ekin erabiltzen diren zenbait atzizki-
ren zerrenda emanen dugu. Beharbada
zerrenda hau ez da osoa, baina ezagu-
tzen ditugun gehienak, hemen daude.
Erreferentziatzat, "Alfabetatzen" libu-
rua hartu dugu, bertako gai batetan
ordenaturik baitatuz horrelakoak.

—**KADA**: Multzoak adierazteko era-
bilia. Adibidez, praktiko gerta daiteke
urte-multzoekin. Adibidez: hamar-
kada, hots, hamarrurtea.

"1970-80 hamarkada edo hiruro-
geitamarraren hamarkada"

—**KI**: Numeralekin erabiltzean,
gauza berdinez edo berdintsuz osotu-
riko multzoen elementu bakoitza adie-
razteko erabiltzen da.

Adibidez: biki, hiruki, lauki,...

Konkretuki: ama berarengandik,
egun berean jaiotako haur bakoitza
izendatzeko erabil daiteke. Honela:

"Erdützea hirukoitza izan da; hiruki
bakoitza seaska batetan jarri dute".

Atzizki honi buruz zenbait ohar egin
behar dira:

a) Ikastoletan ohitura handia dago,
atzizki hau poligonoak izendatzeko
erabiltzeaz. Adibidez:

Lauki = koadrilateroa

Hiruki = triangulua

b) Bizkaian behintzat, zazpi zenba-
kiarekin erabiltzean, bi esangura be-
rezi hartzen ditu:

b-1. Zazpiki: Amaren sabeletik zaz-
pigarren hilabetean jaio dena.

b-2. Zazpiki: Era arbuia garritz,
ipurterrea, haserrekorra, pirria.

c) Hasieran eman diogun esangura
adierazteko, bestelako atzizkiak ere
erabiltzen dira, baina batasunerako
hauxe ikus: on dugu egokiena

Biki: bizki, bikotx,...

—**KO**: Atzizki honek erabilera des-
berdin asko ditu. Horregatik, guztien

azalpena luzeegi gertatuko litzateke-
nez, erabilera desberdinen adibideak
jarriko ditugu besterik gabe; eta inork
gehiago sakondu nahi badu, lehen ai-
paturiko liburura jo dezake.

* Portzentaiatan: ehuneko zortzi
(8 %)

* Karta-jokoetan: bosteko urre.

* Zenbait diru aipatzeko: Hogerle-
koa (5 pzt.)

* Musean: hamarreko (?)

* Dantzen izenetan: banako, binako

* Unitate matematikoetan: hamarre-
koa, ehunekoa, milakoa

* Bestelakoetan: ekazu bosteko hori.

—**KOITZ** (—**KUN**): Bi atzizki hauk
baliokidetzat jo daitezke, biok esangura
berberaz, bina eskualde desberdinetan,
erabiltzen baitira.

Gauza berdin edo berdintsuz osotu-
riko multxoan anizkoiztasuna adieraz-
teko erabiltzen da. Adibidez:

"Lau adarretako zuhaitza, laukoitza
da"

Matematikan, mutiplotasuna adie-
razteko (a. izkoiztasuna hategia) era-
biltzen da, hau da, gaztelaniazko —
ple, —plo atzizkien baliokidea a.

Hirukoitz, laukoitz, boskoitz.

Dena den, bat zenbakiarekin erabil-
tzean, bestelako esangura berezia har-
tzen dute:

Bakoitz: bat bedera, norbera, bana
banakoa.

Bakun: simple, bakarra.

—**KOTE**: Atzizki honen bidez, gauza
edo pertsona desberdinez osoturiko
multzoak adierazten dira. Esate bate-
rako: bikote, laukote.

Oso egokia da, musika-taldeak adie-
razteko:

Zigor zortzikotea

Zorzikote-lehiaketa

—**NA**: Zenbana galderaren ondo-
ria da. Banaketetan bakoitzari zenbat

dagokion adierazteko. Zenbaki kardi-
nalen antzera erabiltzen da, izen bate-
kin doanean honela.

Liburu bana

Launa liburu

—**NAKA**: Zenbanaka galderaren
ondorioa. Izatez, —na atzizkiaren
atzizki erakarria da. Banaketa nola
egina den adierazten du eta bera baka-
rrik erabiltzen da, izenik gabe.

Launaka

Seinaka

Zenbait lekutan —nan atzizkiu era-
biltzen da, —naka erabili ordez: Banan
= banaka

Binan = binaka

—**(R) EN**: Zaliketa batetan, atzizki
honek osoaren zati berdinetarik ba-
koitza adierazteko balio du: Zenbait
salbuespen daude:

ZENBAT ZATI	ZATI BAKOITZA
bi	1 2: erdi
hiru	1 3: heren
lau	1 4: lauren
hamar	1 0: hamarren
berrogeitabi	1 42: berrogeitabiren

—**TAN**: Gertakari baten frekuentzia
edo maiztasuna adierazten du, zenbat
aldiz gertatu den hategia:

Bat = behin (batetan)

Bi = bitan (birritan)


Hiru = hirutan.

—**URREN**: Elkarren ondorek doazen
egunen edo urteen multzoa edo ze-
rrenda adierazteko. Kontextuak berak
esaten digu urteak ala egunak diren.

Adibidez, egunak dira, zenbait eliz-
kizun batzu aipatzeko erabiltzen de-
nean: **bederatzaurrena**. Baina urte edo
aritzekoekin lotzean, urteen zerrenda
adierazi nahi du, edo urtemultzoa:

**Urteurrena, mendeurrena, hama-
rurrena.**

J. R. ETXEBARRIAK



Osasunerako heziketa

Azkenengo aldiotan galuza asko entzuten dugu, "Medizina Prebentiboa eta Soziala" dela eta. Hitz hau ia gehienok ezagutzen dugu baina termino horren mamia ez dago hain argi guztiontzat.

Medizina Prebentiboa eta Soziala hiru zutabe hauetan oinarritzen da:

- Medikuak.
- Erizainak.
- Injinadore sanitarioak edo plangintza sanitarioko langileak.

Baina hauiez da nahiko, osasunerako heziketa falta bada. Horregatik, laugarren zutabea jarriko dugu: hezlari sanitarioa. Populazioak heziketa sanitarioa ez badu, ezin ditu bereganatu Medizina Prebentiboaren plangintzak aurrera eramateko behar diren oinarriak.

Heziketa sanitarioaren objektua, osasuna gorde eta zaintzeko portaera personala eta kolektiboaren ohiturak aldatze eta sortzean datza. Egile batzuk beste era batetara definitzen dute. Pertsona eta komunitatearen osasunaren ohitura, jarrera eta ezagueren faboragarri eragiten duten esperientzien batuketa dela diote. Azken finean, jendea informatzea, geroago ezagueraren praktikak mailara eramateko dela esan daiteke.

Heziketa sanitarioa hiru eratako ekintzetan oinarritzen da:

- Informazioa.
- Kontzientziatzea, hau da, pentsatzeko eta sentitzeko erak aldatzea.
- Ohitura berriak hartzea, aurrekoa jakin ondoren. Ez da nahiko, informazioa praktikara eramaten ez bada.

Informazioaren mamia azaldu behar-

ko da une honetan. Beti pentsatu izan dugu, informazio sanitarioa eritasunari buruzko informazioa ematea dela. Osasuna ongitasun fisiko, mental eta soziala dela eta ez bakarrik gaixotasunaren eza argi badugu, beste informazio berri bat eman behar da. Heziketa sanitarioak, eritasunari, osasunari eta istripuei dagozkien berezitasunak azalduko ditu. Eritasunari dagokion atala, zati txiki bat da bakarrik.

Ohitura sanitario egokiaren erregelarekin jabetzeko, ematen diren arrazoiak ulergarriak eta logikoak izan behar dira. Jendeak jakin behar ditu elikaduraren oinarriak, etxearren eta higiepertsonalaren garrantzia, e. a.

Informazioa hartu ondoren, gure pentsamendua eta ohiturak aldatuko ditugu, arauaren efektibotasuna ezagutzuz.

Hirugarren maila, aurreko dena praktikara eramatea izango da, joera sanitario berri batez jabetuz.

Heziketa sanitarioaren zereginak ondoko hauek guztiok dira:

- Higie individual eta pertsonala: elikaduraren higie, higie mentala, higie sexuala...

- Eritasun sozialaren alde aurretiko diagnostikoa: Lehenengo sintomak igarri ondoren zentru sanitarioa joan behar da. Eritasun sozialaren barruan hauek sartuko ditugu: kantzerra, tuberkulosia, eritasun kardio-baskularrak, gaixotasun benereak...

- Txertapen kolektiboetara joateko jendea behartu egin behar da: polio,

tetanoa, rubeola...

- Droga berrien gehiegikeria ekiditeko behar da. Asegurantzaren sozialean, adibidez, antibiotiko larregi erabiltzen da, erresistentzia berriak sortuz. Berdin beste medikamentu guztiekin.

- Istripu guztien oharraztea, bai trafikokoak, laboralak, etxeak eta kirolekoak.

- Eritasun profesionalaren oharraztea: neurri zaindariak hartu behar dira, kasu bakoitzean egokiak direnak.

- Eritasun kronikak agertzen direnean, gaixoari bizia egokitu egin behar zaio, bai berrabiltzearen bidez, lanpostua aldatuz, e. a.

- Ohitura kaltegarriak itzuri, edo horik moderatu: tabakismoa, sedentaris-moa, janari gehiegikeria.

Beste hainbat puntu ere aipatu egin behar dira baina, ez dugu egingo, lar ez luzatzearen. Hauekin ikusten da nola oinarritzen den heziketa sanitarioa.

Heziketa sanitarioa populazio guztia-ri eman behar zaio, baina batez ere lau puntu hauetan zentratuko gara:


- Gaixoak zaintzen dauden pertsonengan.

- Haurtzaindegietan eta ikastoletako irakaskuntzan ari direnengan.

- Osasunaren erakunde ofizialetan lan egiten ari direnengan.


- Heziketa sanitarioa irakaskuntzan sistematikoki sartu behar da, batez ere irakaskuntzara dedikatuko direnengan.

ARDIBELTZA



LABYRINTOIA

Helduko al zara erdiraino, irakurle? Bidea erraza da, jira-bira asko egin behar izan arren. A, eta irteteko; bide berbera egizu, alderantziz bada ere



23. ZENBAKIA

LUZETARA: 1.— 3.000.000.000 bizilagun dituen mundu honek behar duena (2 hitz). 9.— Kasik. 10.— Desafioa adierazteko hots bat. 11.— Kanalea edo golkoa. 12.— Kantuan, hemengo sorgin zaharrek "keinuka ilargiari". 15.— Bario (symbolo khimiko). 16.— Athletic-en atalzaina. 17.— Biper batzu holakoak dira. 20.— Ahultzea. 21.— Lithio (symbolo khimiko). 23.—Farrow, aktriz. 24.— Atzizki daiboa. 25.— Kain-en anaia. 27.— Txinako edaria. 29.— Errusiako lehen tsarra (1530-84, 2 hitz). 32.— Bihotz edo erlojuaren soinua. 33.—Euskadi Askatuta!. 34.— Atzizki datiboa. 35.— Arrainak hartzeko tresna. 36.— Landa, kanpo. 37.— Paria. 39.— Eguzki gabeko lekua. 41.— Iparraldeko edaria. 44.— "... Nora joaiten ziren"..... 45.— Aitona (ipar aldean). 46.— Deus. 47.— Radio (symbolo khimiko). 49. Atzizki plurala. 51.— "Agur, amerikano..... Hemendik joan zinazten Gazte sasoikoak". (Pello Zabaleta, 2 hitz).

GOITIK BEHERA: 1.— Xabier Lizardi (3 hitz). 2.— Kondenatu. 3.— "Joera" adierazten duen atzizki. 4.— "Bertso"..... Valverde, Lekuona, ta Lete-ren diskoa. 4.— "Estudio estructural del euskara de Ondarroa"ren egilea (2 hitz). 6.— Joxe Manuel Luxanbio. 7.— "Izu egin..... aita arrun da...". 8.— Piltzarrak, arropa zaharrak (hitz elkartua). 13.—Enel. 14.— "Ez naiz gizon txarra, baina, zer arraio". 15.— Baiezko partikula. 18.— Egin (forma laburra). 19.— Tontorra. 22.— Eltzekari txiki. 23.— Euskal mythologia, diskordiak egiten dituen emakumea. 26.— "biga, higa..." 28.— Zaila ez den. 30.— Hastean, Bizkaikoa; gero, Hirukoa; gaur, Euskal Herrikoa. 31.— A Cruña edo Lugo-n bizi den. 38.— Zur (euskalki batzuetan). 40.— "Et..... Brute". 42.— Atzizki alatiboa. 43.— Astato (symbolo khimiko). 48.— Urre (symbolo khimiko). 50.— Atzizki adberbial.

23. GURUTZEGRAMA

1		2		3	4		5		6		7	8
				9								10
11					12				13		14	
				15					16			
17	18		19									
20						21	22					23
			24		25	26			27	28		
29				30					31			
		32				33				34		
35						36				37		38
									39	40		
41				42		43			44			
				45							46	
47	48								49	50		
51												

EUSKARA DESAGERTU ARREN, BIZITZAK AURRERA JARRAITUKO DU, JAKINAI!

Euskaromaniakoak
beti dabilta leku guztie-
tan euskara sartu nahirik; seme-
alabekin etxeetan, dendariekin kale-
etan, aldibereko itzulpenak eskatzearekin
biltzarretan. Zoraturik daude, baina soluziobi-
derik ez dagoen bitartean jarrera indibidualari jarrai-
tzen zaizkio. Beste batzu aldiz, patxadaz hartu dute euska-
raren arazoa. Aberri honen ordezkari legalak eta
ez legalak kontatuta 0/0 85tan ez dakite euska-
raz eta dakitenen artean gehienek helbu-
ruak lortzeko erdaraz egiten dute.

EUSKARA EUSKALDUNON BIGARREN HIZKUNTZA BILAKATU DA

EUSKALDUNOK BITARTEAN AURRERA DARAMAGUN BURRUKA
HONETAN ALDE POSITIBO ETA NEGATIBOAK KONTUTAN
HARTZEN DITUGU ALDE GUZTIETATIK

10 urteren buruan Euskadiko ikasletariko
50 0/0k agian euskara estudiatuko du.
10 urteren buruan euskaldunok 50.203 ge-
hiago izanen gara.
10 urteren buruan Euskadin 200 baino ge-
hiago izanen da iksatola kopurua.

Orain 60 urte baskoetariko bitik batek
euskara zekien. Gaur aldiz 10tik 2k.
Duela 70 urte, euskaldunetariko bitik
batek ez zekien erdararik.
650.000 euskaldunotarik 60 0/0 baino
gehiagok hobe egiten du erdaraz euska-
raz baino.
Euskaradunetariko 95 0/0 euskaraz baino
hobe, erdaraz irakurtzen du.

Egoera hau errotik aldatzeko
ez dute balio jarrera indibidualak
Bakarrik, botere publikoen ekintza au-
sart eta erabakior batek salba dezake euskara
Exiji ezazu, eska ezazu zuk ere, orain
euskaraz egiteko zure eskubidea
euskaraz entzuteko zure es-
kubidea orain

- Gure haurrak euskaldun diglosikoak izan ez daitezen
- Gure bigarren hizkuntza euskara izan ez dadin
- Kultura unibertsalaren adierazpidea izateko

EUSKARA HUTSEZKO TELEBISTA IRRATI KATE BATEN SORTZEA
EUSKARA HUTSEZKO TELEBISTA IRRATI KATE BATEN SORTZEA

anaitasuna

euskal herriari,
informazioa
euskaraz.

EUSKAL PRENTSA
EUSKALDUNON HITZA

zeruko
ARGIA

GEU
GARA
EUSKAL
PRENTSA

anaitasuna

zeruko
ARGIA